

anaitasuna

1976.eko Apirilaren 15ekoa
315. zenbakia 25 Pta.





ARANZABAL

• **FUNDIZIOA, ALTZAIRU
MOLDATUA ETA BURDINA
MALEAKORRA**

• **TARTEKO
TXATALEN ETA SERIE
HANDIREN
MEKANIKAPENA**

GASTEIZ



Gaurkoa zarenorri
guk ezer eskaintzean,
biharko emakumeari ere
ari gara eskaintzen.

Laguntza berriak
zuri ematean,
zure nekeak, zure kezka zaharrak
dihardugu arintzen.

Berriak dira,
zuretzat ditugun asmoak:
onhartzten zailtxoak beharbada,
guztiontzat baitira berriak.

Baina zein ederra den pentsatzea.
gaurko urrats zailok
aurrera gaituztela bideratzen,
biharko digutela
bidea urratzen!

Emakumearen Bankua.
Gaurkoa eta Biharkoa

BANCO DE BILBAO



AURKIBIDEA

3. Aurkezpena: EUSKAL KULTURAREN EGUNA.

4. TANTAKA:

- A. Inurritegi
- X. Kintana
- X. Cereño
- X. Artzelus

6. EUSKAL HERRIAN

- 24 orduak euskaraz
- Hezkuntza
- Politika
- Ipar Aldea

17. IBERIAN ZER

18. ERLIJOAZ

20. ELKAR IKUSKA

- J.P. Seilliez

24. HIZKUNTZA

25. POSTAZ ETORRIAK

26. AISIAREN ORDUA


- Zapaburu birbiztua
- Urrezko astabelarriak
- Gurutzegrama

Maketapena: Fernando

Marrakziak: Fernando eta Olariaga

Moldiztegia:

Elizpuru Hnos., S.A.
San Martin, 153
Zamudio



EUSKAL KULTURAREN EGUNA

Martxoaren 27an 24 orduak euskaraz egin genituen. Egun osoan. Egun bete. Egun zoragarria zela entzun nion bati baino gehiagori.

Egun au, euskal kulturarentzat, esperientzia bat izan zen.

Sinbolo gisa eta bere osotasunean da esanguratsua, eta ez puntuz-puntuka epai zorrotzaren bahetik pasaturik. Goitibeheti ugari izan zituen: gauza onak, arras lortuak, eta ez hain onak.

Guretzat, egun honek bospasei gauza utzi zituen agerian.

Haustura ikaragarri bat dago ezarritako kulturaren eta euskal kulturaren artean. Euskal kultura honek ez du babesik, ez du aginterik. Baina bizi da. Traba eta eragozpen guztien gainetik.

Erdal egunkariak eta astekariak ez dute haintzat hartu ere egin egun hori. Gure egunkarien axolarik eza ezaguna zaigu. Harrituago gaude Madrilen ateratzen diren astekari horien jokabidea ikusiz.

Egun honek, ba, aspaldi aldarrikatzen ari garen euskal komunikabideen premia are azpimarratuago uzten du. Geure arazoak eta geure dinamika bultzatuko duten mass media batzu behar ditugu lehenbailehen.

27koak, nahi eta behar genukeena dastatzeko balio izan zuen. Baina egunero egunero horren erdia egiteko ba al gara gauza?

Ez ditzagun geure buruak engania. Epe luzerako lan bat egiten gertu beharretan gaude. Egiturak, instituzioak eta pertsonak prestatu behar ditugu oraindik. Ezin dezakegu ahantz bi irratik besterik ez dutela parte hartu nahi izan. Gainera, hainbeste jendek parte hartzea pozgarria izanik ere, oraingoz agian euskal kultura gaitzat harturik gerta daiteke hori, eremu landuena beratu baita.

Zenbaki honetan, egun hau dela eta, zenbait jenderen eritziak bildu nahi izan ditugu: euskaltzain batena, antolatzaile batena, langile batena, Jaialdian parte hartu zuen batena.





PUNTO Y HORA DE EUSKAL HERRIA-RI ONGI ETORRI

Apirilaren hasieran, nafarrek berri on bat eskaini digute: *Punto y Hora de Euskal Herria* izeneko hamabostekariaren lehen zenbakia kaleratuz. Kazeta hau, artikulu bat salbu, gaztelaniaz idatzita dator baina Euskal Herriko arazoak orain arteko ezein erdal aldizkari-tan ikusi ez dugun zehaztasun, egokitasun eta jatortasunaz tratatzen ditu.

Bide horretatik segituz gero, ez dago hor dudarik, arrakasta handia lortuko du. Shakespearek aspaldian bezala, Nafarroa harrigarria da beti eta orain-goan nafarrek lezio eman digute beste euskaldunoi. Zorionak eta mila esker.

LASARTEKO IKASTOLAREN DEIA

Lasarteko ikastolan talde artistiko bat dute eta beren programan, dantzak, kantak eta jokuak dituzte, zerrenda luze batetan.

Euskal Herrian zehar ezagunak dira beraiek eskainitako saioak, eta orain dei berezi bat egiten dute, jai antolatu-zaileek Lasarteko ikastolako taldea gogoan euki dezaten jaiak antolatu-zerakoan. Gogoan har ikastolako horretako gurasoen artean **Michelin** lantegian lan egiten zutenak hainbat direla, eta greban daudelarik aspalditik, ikastolako kuotak ordaintzea nekeza egiten zaiela. Ikastolako talde artistikoaren asmoa da eskaintzen duten jaialdietako dirua guraso horien kuotak ordaintzera aplikatzea.

Haien helbidea: Ikastola de Lasarte-Usurbil - Casa Andre Joakina Enea - LASARTE.

URTEOROKO MEZA

Dakikezenez, Eustakio Medizabal (Txikia) Algortan erhan zuten 1973ko apirilaren 19an. Aberri Egunean egin zitzaizkion hiletak Itsasondon, herri guztia harmaz hartua zelarik.

Urteoro berri nahi izaten du haren aitak meza hori. Aurten ere, Itsasondon, San Joan hauzoan antolatua du hamabi t'erdietan.

RTVE-REN PARTZIALKERIA

Espanian nabaritzen den irekitasunak maila ezberdinak ditu.

Adibidez, handiagoa da irekitasuna asterokoetan egunkarietan baino. Eta hauetan handiagoa RTVE-ean baino.

RTVE ikusirik, ba dirudi lehengoan gaudela. Juan Carlos Erregek esan zuen ez zirela pribilegiarik egongo, baina RTVE-koek ez dute Erregeren agindua betetzen, zeren ba dirudi eskuinaren eskuineko eskuindarrek monopoli-zatzen dutela zorioneko RTVE hori.

RTVE guztiok ordaintzen dugu eta inongo taldek ez du eskubiderik herriaren lepotik irri egiteko.

Herria leialki informatu behar da eta honek eskatzen du inpartzialitatea eta denei aukera berberak ematea. Telebis-taren partzialkeria oso nabarmena da, eta adibide bezala hor dugu Soljenitsyn-en kausa. Guk es dugu jurtakuko hark esandakoak egiak ziren ala ez. Baina erruso horri eman zitzaion aukera ez zaio beste bandakoei ematen, eta hori ez da zuzena.

EGIA ETA GEZURRA

1936. urtean Gernika bonbez apurtu egin zuten eta ekintza horren inguruan nahaste handia sortu zen. Nork apurtu zuen Gernika egiazki? Hainbat urtetan gezurra izan zen nagusi, baina azkenik egia gailendu egin zen eta orain guztiok dakigu.

Berrogei urte beranduago, Gernika berean, euskal abertzale omen diren familia batzuren etxeak bonbez zartatu dituzte. Ekintza horien eragile omen zirenek, beraiek izan direla adierazi dute. Hemen ere nahastea. Baina hemen ere egia gailendu egingo da, eta nor nor den jakingo dugu.

TXEKEAK AUSKARAZ

Lehenik **Caja Laboral Popular** eta **Banco de Bilbao** baziren, orain, aldiz, **Banco Atlantico** delakoak berak ere txekeak euskaraz, katalanez zein galegoz ere onhartzeko erabakia hartu berria du. Dakusagunez, merkatal munduaren interesek Estatuari aurea hartu diote oraingoan herri hizkuntzak onhartzean.

Euskaldun askok, seguraski, euskaraz **páguese** eta **al portador** nola esan litezkeen jakin nahiko dukete. Gu geu, txeke askorik esku artean ez darabilgun arren, hurrengo formulez baliatu izan gara orain arte: **ordain ...-ri** eta **dakarrenari**. Inork hoberik aukitzen ez digun artean, horiekin segituko dugu.

HAUTESKUNDEAK LAURON

Apirilaren 2an Lauroko ikasle junta zuzentzailearen aldaketa zen. Bizkaiko ikastola haundietan honetan aspaldion egon diren gure herria latzak direla eta, jendea oso raturik aritu da, hautapena egiteko orduan ikusi ahal izan denez. Izan ia lankide guztiek hartu ukan dute oraingoan. Onerako izan bedi.

PCE: ABERRI EGUNA = MATEA BERDEA

Holaxe bataiatu du bere panphletoan PCE delakoak (E = Euzkadi = España) Euskal Herriko oposizio alderdi guztiek — beraren salbuerak oheragarriaz — aurten Iruinean egiteko erabaki duten manifestazioa.

Iruineko biltze hori, Espainiako lurralde guztien arteko oinharritasun batasun sakratuaren kontra doala erabat galerazia izan da Medinako Gobernuaren ordezkari nagusien erantzunik.

UNIBERTSITATEAN GUZTIAK ABERTZALE

Apirilaren 2an Lejoako Unibertsitatean Iberiar Penintsulako herri guztien eguna ospatu zen. Horretarako Galizia, Katalunia, Valentzia eta Euzkadi Herriko ordezkari batzu, nor bereziki Lejoako problema bereziaz mintzatzeko tsatu zen. Lege aurreko betebeharrak guztiek kunplitu ondoren, esan zuten Lejoako Unibertsitatearen ingurua gela nagusian 3.000 estudiantek bildu behar zirela, aretoa murriztu behar izango betez. Tokia katalan, valentiar, galego eta euskal banderez hartu zegoen, eta jendeak gogoz bildu zituen Galizia, Katalunia eta Valentziako hizlariak.

Euskal Herrikoek — X. Amuriz, X. Matxain eta X. Kintana — beren zuten erarik ukan deus esateko, haren artean dienean, polizia herriko etorri eta jendea, zalapartan, nork aldeetik sakabanatu baitzen. Nork ziren irekitasun bakarra, han, ate zuzenaren hoena besterik ez zen izan, hainbat bezala, ihes egiteko.

TXISTULARIAK SANTUTXUEAN

Datorren hilean, Maiatzaren zuzen, Santutxu izeneko Bilboeko zotegian, euskal hamabostaldiko txistulari teko asmoarekin ari gara. Hamabostaldiko horretako igandean, 9an eta 10an txistulariek izanen dute beren gaiterria.

ri handi batetan behintzat, jaia goimailako giroan eustea, goizetik gauerarte-ko dantza, kalekira eta beste ekinaldi alaitu eta luzeren bidez. Horregatik, bi egun horietan Santutxura etorri ahal zaitezketen txistulari guztiei, geure eskari beroa bidaltzen dizuegu, etor zaitezten erregutuz. Zuen erantzunaren zain geratzen gara 4334742 telepho- noan; bertan Sara Salazar-ez galde dezakezue.

BAT BITAN (EDO HIRUTAN) BANATZEN DA

Loiola eta Donostiako Herri Irratiek poliki antolatu eta aurrera eraman zuten, '24 orduak euskaraz' deituriko egun osoko irratsaioa. Bilbon bizi gare- nok, ordea, ez genuen aukerarik izan, bertoko Herri Irratitik egun horretaz gozatzeko. Baina, entzun dugunez, ez dut uste Irrati horretakoei errua behar diegunik, programa hor Bizkai eta Nafarroarako debekatua izan baitzen goi-erakunderen batez. Zergatik? Horren erantzuna izenburuan aurki dai- tekeela uste dut: "Zatika ezak eta garaituko duk". (Ramon Garai)



GEORGIA: EUSKARA UNIBERTSITATEAN

Georgiako soviatar Errepublika Sozialistan, aurren, euskara asignatura optatibo gisa ezarri izan da Tbilisiko unibertsitatean.

Georgiako hizuntza, euskararen an- tzera, erabat ezberdina da inguruko guz- tietatik eta estrukturaz ba du euskara- rekin antz nabari bat. Hori dela eta, mintzaira bien arteko lotura posiblea hobeki aztertzeko, georgiarrek beren unibertsitatean euskara asignatura ofi- zializat jartzea erabaki dute, beronen irakaskuntza Greta Txantladze andre euskalari gaztearen karguan utziz.

Pozgarri bezain lotsagarria da, noski, Sovietar Batasunean euskara hemengo egoera berberaz aurkitzea, hots, ikasgai optatibo gisa. Zeren, Carlos Sentis jau-

nak oraino ez baldin badaki ere, geor- giera, leku eta maila guztietarako, **lehen** hizkuntza ofiziala baita Georgi- ko errepublika horretan.

ALBERTO GABIKA, KALEAN

Alberto Gabika Lekeitioko abadea, Zamorako espetxean zapi urte egon ondoren, kaleratua izan zan orain dela egun batzu. Berri on hau ezagutzean Lekeitioko herriak ongi etorri alaitu eta bero bat abadeari egitea erabaki zuen eta ehun lagunengatik elkartu zen Lekei- tio erdian bere zain. Itxaroten zeudela, karneta eskatzen hasi ziren hango goardia zibilak eta, abadea berebilaz iristean, gogor hasi ziren jotzen taldeko lagunei. Gabika abadearen anaia bat, gogor zaurituta, eritegira eramana izan zen, matrail ezurra apurtu baitzioten. Detenturen artean dago gainera Karlos abadearen anaia hau.

EUSKAL ASTE BAT ERREKALDEBERRIN

Euskal Kultur Aste bat izan dogu Bil- boko Errekaldeberri hauzunean. Erre- kaldeberriko Famili Elkarteak eratu du aste hau, bere barruan dauden euskal- tzaleak indartzen baitira piskanaka. Dakizuenek Errekaldeberri erdal giroa de jabe, bertan bizi diren bizilagun gehienak erdalduak izatean. Azken berrogei urteotan ez da ez euskal giro- rik ez ekintzarik ikusi hauzune honetan. Epe luze eta triste hau apurtu dela diru- di. Betiko izango al da?

Kultur Aste hau Martxoaren 22tik 29ra iraun zuen eta bertan ikuriko gaiak hauxek izan ziren: "Sozial eta kul- tural integrapena Euskal Herrian", Joan Mari Torrealdai gertuta; P. Goenagak "Hizkuntz bitasuna eta diglosia" gaiaz hitzegin zuen; Gotzon Elorzak Euskal Kulturaz diapositibak agertu zizkigun; "Arraizpe" eta "Batasuna" taldeak eus- kal dantzei ekin zitzaizkien eta, amai- tzeko, Iñaki Irigoienek euskal dantzak diapositibaz ezaguterazi zizkigun.

Gertutako gai bakoitzak ehunedo ehun ta berrogeitamar entzule edo ikusle izan zuen eta euskal astearen antolatzaileek konforme xamar dirudi- te, lehengo aldiz antolatua izan dela pentsatuz. Ba dute orain beste euskal aste batzu gertutzeko asmoa. Aurrera, ba.

EUROPAKO PARLAMENTUA

1978. urtean europarrek hauteskun- deak edukiko dituzte Europako Parla- menturako diputatuak aurkeratzeko.

Parlamentu honek 355 diputatu izango omen ditu, eta egin berri den

inkesta batek adierazten digunez, hau- teskundera orain egingo balira, diputa- tuak honela izango liriateke aukeratuak; 117 sozialista, 92 kristau demokrata, eta 30 inguru talde bakoitz haus eta- koak: komunistak, kontserbakorrak eta liberalak. Alderdi txikiagoen artean, 50 bat.



ESTITXU BERRIZ ERE GURE ARTEAN

Ipar Euskal Herritik etorri zaigu Estitxu Bizkai aldera eta berriz ere ekin zaio bere zereginari: abesteari.

Hainbat saio eskaini digu azken egu- notan, eta batez ere dantza tokietan. Orain arte euskal abestiari arrotz izan. zaion toki horretan Estitxuk arrakasta lortu du.

ZERTARAKO FORUAK?

Orain arte Palmako Gobernadore Zibila izandakoari elkar hizketa bat egin diote "España 21" aldizkarikoek, eta Foruak aipatzerakoan, hau esan du: "*Fueros al País Vasco? Y para qué?... Lo mismo se los podrian dar a Castilla*".

Eman diezazkietela Foruak, bai Gaz- telari, zen Andaluziari. Baina eman die- zazkigutela geureak euskaldunoi.

MANIFESTAZIOAK

Apirilaren laurako manifestazioak egiteko baimena eskatu zuten Madril eta Bartzelonako demokratek. Hori iku- sirik, *Federación de Excombatientes* delakoek egun berean, ordu berean eta leku berean, beste manifestazio bi egi- teko eskatu zuten. Zein helbururekin? Bistan da: Gobernuak, hiritar bakea gordetzearen, denak debeka zitzaiz- kan.

Benetako libertateak besteak erres- petatzea eskatzen du, baina ba dirudi *Excombatientes* direlakoek orain eruki monopolioan iraun nahi dutela, beraiek dituzten eskubideak besteiei ukatuz.



24 orduak euskaraz

Martxoaren 27-aren, hau dek, 24 ORDUAK EUSKARAZ delako egunaren haisieran bertan esaniko hitz berberak ekarriko nizkikek izenburuko galdera gisako holeri erantzutearren. Gerra aurreko disko batetik jasotako irrantzi batekin hasi genian eguna. Eta esaten: "Aspaldiko irrantzi hau egunaren hastapenetan jartzeak zera esan nahiko luke:

LEHENIK; bizi nahia. Edo hobe, bizitzen jarrai nahia. Nahiz eta, sarri, bizitza karraxi bat bezain latza gero GERO, bizitza hau karrasia bera bezain aske eta airoa izan dadinaren nahia.

HIRUGARREN, aspaldiko karrasi berbera bularretan sentitzea eta kanpora jaulkitzeko adorea izatea.

Hitz bakar batzuetara biltzen salatuaz honela esan genezake: 24 ORDUAK EUSKARAZ eguna antolatzea aspalditik, arbasoengandik datorkigun bizitza berriro adorea bizitzen hasi nahia adierazi nahi genuela.

Eta, nik uste, batez ere egunak adorea hau adierazi zuela. Ez noski, bakar batzuren adorea. Gehienona baina Euskal kulturaren alde lan agiteko prest daudenena, halebila. Adorea heldu eta umotua. Hazia. Eta gazte gaztea, baina batez. Etorkizunari begira jarria.

Hesirik, mugarik gabeko egunaren antzeko izan zuan guretzat 24 ORDUAK EUSKARAZ. Hala planteatu izan genian. Mugagabe. Mugagabe denboran, eta horregatik bataiatu genian bataiatu genuen bezala egunak 24 ORDUAK EUSKARAZ (eta ez "24 ordu euskaraz"). Eta osotasun itxurako eta plantako ekintza nahi izan genuen orobat, planteatu geografia aldetik. Egunaren geografia, horrela, Euskal Herriaren geografia osoan kokatu zuan, baina bintzi eta bestelako mugatusun guztiak gailendu najlaz. Nik uste erabili genuen sinbologia aski adierazkorra izan zuten zentzu honetan, nahiz eta erabili nahi izan genuen guztia ez genuela erabiltzerik izan.

Asmoetaz hitz egiterakoan nagusia haxe izanik, hementxe utziko nitek.



EGUNAREN GORABEHERAK ETA NONDIK NORAKOAK...

Egun honetarako ideiek ba diate urtebete pasako bizia, urte eta erditakoa ez badute. Ideiei pasatzen zaiena, ordea: egokieraren txanda zain egon behar izaten dutela, beraiekin deus egingo bada behintzat. Gure honi ere, halamoduzko zerbait gertatu zitzaiotan. Joandako urtearen azkenaldera bakarrik erabaki genian ideia martxan jartzea, *Decreto de las Lenguas Regionales* delakoa eman ondoren.

Lanarekin hastea, konkretuki, urte honen hasierarekin izan zuan. Irratitik kanpoko hiru mutil eta neska batekin batzorde bat eratu genian, eta aste-eroko bilerei ekin genian. Hau honela egitearen arrazoiak, irratien eguneroko martxa baldartuegi aurki ez zedin izan zuan. Arrisku hori berehala ikusi genian, ikusi ere; eta eskerrak ikusi genuenari Loiolako eta Donostiako Herri Irratiek beren martxari eutsi ahal izan zioate, bide batez, 24 ORDUAK EUSKARAZ egunaren prestamenak jarritako epean lortzen zirelarik.

Lehen lehenik egin genuena, egun osoaren programaketa erabakitzea izan zuan. Egunaren osagaiak, esan genian, hauxe izango dira: Mahai inguruak, kronikak, elkarrizketak, bertsoak eta musika. Azkenerako, gauzak honela konkretatu genian: MAHAI INGURUAK gai hauetaz: euskalduntzen- alfabetatzen, poesia, Aranzadi elkarte eta ikerkuntza, euskal folklorea, komunikabideak eta euskara, Euskal Herriko ekonomiaz, margogintza eta eskulturgintza, liburu-argitaldaria, antzerkia, nobela eta saiakera, bertso-argitaldaria, kantagintza eta diskogintza. Bakoitza ordu erditakoa. Ordu eta erdiko mahai inguru bat IRAKASKUNTZAZ, bertara Nafarroa, Bizkai, Gipuzkoa eta Arabako zenbait jende biltzen zelarik. KRONIKAK, hogeitabost. Guztien gaia: euskal kul-

turaren egoera eskualdeka. Hasiera batetan, kronikalari bakoitzari zortzi minututako epea jartzea pentsatu genian, baina azkenerako, bakoitzak nahi zuen denbora guztia hartzeko modua izan zian, puntu hau biziki interesgarri iruditu zitzaiagunez. Interesgarri eta aberasgarri. Ez diagu, noski, Euskal Herri osoan euskal kultura nola aurkitzen den isladatzea lortu. Baina hau hola gertatu duk egun batek dena egiteko astirik ematen ez duelako. Eta beste arrazoiaren bategatik. Eta denontzako tokirik ez izanez, batez ere, punturik interesgarrienak —mila arrazoi bide— jasotzen saiatu gaituk, hala nola Bidasoaz bestekaldea, Tafalla, Tuterak, Barakaldo, Basauri, lau hiriburuak etab.

ELKARRIZKETENAK, berriz, ez diat uste argibide handirik behar duenik, hori berez argitzen den zerbait delako: euskal kulturaren alde, guztiz alor desberdinetatik, lanean diharduten bakar batzurenkin baizik ez diagu elkarrizketa izan ahal, denbora faltaz. Gutien loturik gelditu dena hauxe izan dela uste diat.

MUSIKA eta bertsoez ez diagok zer esanik, ez bada hura guti sartu genuela —jende askok hitz egin zezan— eta hauk bertsoari geuk jarri genizkien gaiez batatako bertso batzuek zirela.

Hau dena aurrera ateratzeko ez zaiguk oztoporik falta izan. Ez diagok beraien historia osoa hemen kondatzerik. Eta horregatik bere horretan uztea dela onena pentsatzen diat. Hori bai: oztopo bati zor zaiok egun hau Donostia eta Loiolako Herri Irratietatik ez ezik Iruineko eta Bilboko Herri Irratietatik eman ez bada.

Oztopo eta traba guztiak ez duk gairik izan. Batzuek bai, horregatik. Eta eguna ospatu ahal izan duk. Ba diagu nori eskerturik. Batzuek oztopoak jarri ahala, beste batzuek beren laguntza osoa eskaintzen baitziguten. Eta iritsi gaituk iritsi garenara. Guztientzat beraz horri hauetatik gure eskerrik beroenak!

Jose R. Beloki

EUSKAL HERRIAN

JENDEAREN ERANTZUNA!

Aldez aurretik esan dezadan urtean zehar gerta ohi denaren alderantzira, egun honetan jaso ahal izan genuela jendearen erantzuna. Eta jaso izanak berak —erantzun honen nolakotasunak ez ezik— zerbait esan nahi dik. Entzulea, nekez bihurtzen duk, izan ere irratitik esaten den edo egiten den zerbait dela kausa, erantzule. Behintzat entzulegorik gehiena. Ozta ozta bakar batzu izaten dituk entzunari zerbait erantsi nahi izaten diotenak, edo kendu edo eztabaidatu. Oraindik ere gutiagotan gerta ohi duk oneritzia agertzeko eta zoriontzeko deitzen edo idazten dutela.

Martxoaren 27-ak eskema guzti hauk txikitxiki egin zizkian. Gauerdian bertan hasi zen telefonoa dantzari: "Zorionak", "Jarrai horrela", "zuek etxerako", "gau pasa egiteko asmotan gaude", "horrela izan beharko luke egunero", "entzuten gaude, jarrai aurrera". Deiak bata bestearen segidan zetozen, atsedetik utzi gabe ere. Goizeko ordu biak edo hiruak zirela, berdin: "amona ezin oheraturik gaude", "gau guztia lo egin gabe igarotzea pentsa dut, Jarrai". Goizaldeko hirurak inguru izango ziren. Arrantzara joateko asmotan jeiki naiz, baina irratia jarri dut eta ez joatea erabaki dut, gaurkoz. Zuekin nago".

Egun horretan jaso genituen dei asko eta askoren konstatapena ba diagu. Gehientxoena. Eta errepasa bakoitzean, txundituta gelditzen nauk. Gure irratia entzuteko modua duten herri guztietatik jaso genuen deiren bat. Hasi Bilbotik, pasa Gasteizera, jo Gipuzkoa alboko nafar herritara (gure entzulegoa hor gelditzen denez), iritsi Gonibane Lohitzuneraino: barrenean aurkitzen diren herri guztietako deiak. Kultur elkarteak, mendigoizaleak, alkate bakar batzuk, 60 urteko aitona-amonak, ikastolako haurrak, ikasle eta irakasleak, Unibertsitate mailakoak eta haurzaindegikoak... Batek, aldez aurretik idatzi zuen txostena irakurtzen zigukean, besteak, bertso pareta, negarrez batek baino gehiago, ezin hitzeginaz... Ez zaitak posible dei guztien berri zehatz ematea. Eta bilduma lana ere ez duk posible, oso ere nekeza —eta murrizgarria— gertako litzatekeenez hori guztia eskemaratzeari. Ez diat uste esan bearrik dagoenik, baina badaezpada, esan dezadan esajerazio apurrik ez dela hitz hauetan. Zertarako esajeratu, bestalde? Jakin ere bai bait zekiagu dei horiek gure erresponsabilitateari gehiago hots egiten diotela, harropuzkeriari baino.

JOSE R. BELOKI



EUSKALTZAINDIAREN BATZARREA

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregi saloi nagusian, martxoaren 27ko eguerdiko ordu batean bildu zen Euskaltzaindia, mahaiburua: euskal Herriko lau diputazioetako ordezkariak, euskaltzainburua, batzarrearen moderatzailea eta idazkari jaunak.

Euskaltzainburuak agurrezko hitzez ireki du batzarrea, esanez, lehen aldiz ematen dela Euskaltzaindiko batzarrea irratiz eta gogoraraziz orain arte errege Juan Carlosek egindako nortasun orheratzea. Eta, lau Diputazioetako ordezkariak esker onerakutsi ondoren irratituentzuleak agurtzen dituzte.

Jose Maria Ayestaran Gipuzkoako diputatu jaunak, Julio Iturralde Nafarroako diputatu jaunak, agurrezko hitzak irakurri dituzte, eta ondoren Argibáñez de Opakua Arabako diputatu jaunak, ordezkari M. Ruiz Urrestarazu jaunak irakurri du batzarren agurra.

Haritschelhar jaunaren etorri ezina agertu du Jose Maria Satrustegi euskaltzain jaunak, batzarre hontarako moderatzaile izendatua denez. Ezin berean beste euskaltzain batzuren etorri ezina agertu du, eta ondorengo hizlariak aurkezten dituzten beren sarrera hitzaldia eginen duten euskaltzain laguntzaile berriak: J. M. Iriondo Loiolako Herri Irratiko **speaker**, Gexan Alfaro "Lantziri" irratiko kazetaria, Mikel Atxaga kazetari eta Zeruko Argia-ko zuzendaritzakoa, Joan Mari Torrealdai Anaitasuna aldizkariaren zuzendaria eta Xabier Aranburu "La Voz de España"ko kazetaria eta Donostiako **Asociación de la Prensa**-ko buruzagia. Bostak 1975eko ekaineko batzarrean izendatuak dira.

Jose Maria Iriondok irakurri du bere txostena "Irratigintza eta euskara", euskara irratian noiz eta zer mailatan erabilia izan den adiarazten du. Nekazaritzaz pentsatzen hasi zen lan hura orain kaleko zabalkundeetara gehiago begiratuaz oheratzen da.

Gexan Alfaro (Gexan Lantziri) mugazandiko berriak emanez datorkigu, "Euskara Ipar euskal



Herriko irratian", zer mailatan erabiltzen den euskara Baionako irratian eta zelako eragozpenak aurkitzen dituzten adiarazten du.

Mikel Atxagaren txostena "Komunikabideen beharra" agertzea izan da, aintzinakoetatik hasiaz kazetaritzaren historiara eta hemendik gaurko egunak arte ekarri duen bidea, honen beharra eta euskarazkoaren zabalkundea haztearen neurria euskara beraren beharra gehitzen dela.

Joan Mari Torrealdai "Euskal komunikabideak gaur eta bihar" gaiaz, kulturatzaren aurrerapenak euskal aldizkariari eman dien eragina eta gure aste-kariak nola behartu diren erdarazkoak bezain onak izatera, baina kazetaritza profesionalizatu beharra agertzen du eta irratiz eta telebistaz lan gehiago egin beharra.



Azkenik, Xabier Aranburuk, "Euskara, erdal egunkarietan" gaizko txostenaz, lehen partean izan zituen eragozpenen historia egiten du, euskarazko lanak argitaratzen dituen egunkarien izenak eta horien noiztikakoa markatzen ditu, eta Euskal Herriko 215 tituludun kazetarietatik hamar bakarrik direla euskara dakitenak. Baita ere, aztertzen

ditu erdal egunkarietan erabiltzen diren gaiak, euskaraz, eta kazetaritzaren berri ematek baino hurbilago daudela literaturgintzatik.

J. M. Satrustegi jaunak, zenbait oharren artean, hartu diren agurren berri ematen du eta mugazandik gaur bertan Madaleine Jauregiberry euskaltzain ohorezko andereari egiten dioten omenaldia aipatzen du.

Idazkariak goizean euskaltzain osoak eta aditz batuaren batzordekoak egin duten bileraren berri eman du: Zaldibarko udaletxeari eskerrak ematea, Bitor Garitaonandiaren omenaldi antolaketaarako eman ziguten laguntzagatik; Nafarroan euskaltzaindiaren ordezkariak sortzeaz, Principe de Viana mintegiaren inguruan eta J. M. Satrustegi euskaltzain jauna buru delarik; bestalde, aditz sintetikoaren zenbait puntu aztertu direka, batzorde idazkari den P. Altuna jaunak bildu dituen adierazpenen araueraz.

Idazkari-ordezkoak irakasle titulurako egongo diren examenen berri, eta Gasteizen Odon de Apraiz euskaltzain ohorezkoari egingo zaion omenaldiaren aipamena.

Jose Maria Olaizola, Gipuzkoako diputatu eta diputazioko kultur saileko buru denak hitz egin du, duela denbora guti Madrileko Ateneoan euskarazko hitzaldi batera nola joan zen eta teknika hiztegiari buruzko gaidun hitzaldi hartatik argi ikusten zela euskara ez dela baserritarrena bakarrik eta gazte kementsurik eta jakitunik ba dela euskararen indarberritzeko lanetan. Eta bere aita Jose zenaren olerki bat irakurriaz bukatzen du.

Azkenik, bukatzeko, Xabier Diharce "Iratzeder" jaunak mugazandiko euskaldunen agurra eta J. M. Satrustegi eta L. Villasante jaunek Donostia eta Loiolako Herri Irratikoei eta "24 orduak euskaraz" antolatzen lagundu duten guztiei eskerrak emanez bukatzen da.

J. San Martin

JAIALDIA

"24 orduak euskaraz", Herri-irratikoei beren buruekin egindako dema bat izan da, baina, jendaurrean eta jendartearen desarrollatur den dema bat. Beren herrian bazterturik dauden irratilariak, plazaratzeko ausart-

zia izan dute, totelkeriarik gabe eta bide batez esku eman die beste hainbat ilumpetako langile isilei beren ahotsa plazara zezaten. Eta zer hizkeran agertu ere! Orobat garturik egun horretan jendeak erabili duen euskara adierrazgarria izan da, desbirgatatuko hizkuntza bat, bere baitan kabi ezinez lehertutakoarena; nahiz eta oraindik oinazez, ausarta eta konplexurik gabea, naharoa.

Hau argi eta garbi nabaritu zen, bai azalez nola mamiz, irratiaok beren mementurid dramatikoa eta sulerenteenetako batera heldu zirenean 2,30tan: Martziakoak azaldu zirenean Saturnoko berriak ematen.

Egun guztian zehar beren ahotsa airez igorri zutenek eta hitz hori jasotakoek elkar ikuste-koak ziren, beharra zuten eta gaueko jaialdian, soinu eta dantza atxakia zelarik, elkarrengana

EUSKAL HERRIAN

bildu ziren egun guztian bildutako zama elkarrizkietarako.

Jendea belodromora hurbiltzen zelarik jaialdiak bere sareetan gartzen zuen, ordurako han bait zebiltzen Iturengo Ttuntturroak biltokiaren inguruneak berenganatzen. Jendea sartu ahala biribilean esertzen zen, bata bestea aurrean zuelarik eta biribilaren zati bati loturik, kantari eta dantzarien agertokia. Lehen mordoska bildu bezain laster jendea kantari hasi zen. Belodromoa erdi bete zenean ttuntturroak agertu ziren lurpeko sarreratik eta pistari jarraikiz, jendea inguratuz eta jendez inguraturik, egundainoko orro eta marru lagun, hamaika itzuli eman zituzten etorri ziren bezala lurpean ezkutatu ziren arte.

Kantariak ekin zitzaizkion ondoren. Hauen emankizuna ez zen bestetan bezalakoa izan, bakoitzak saio labur bat eginez, giroari erabat loturik beren kantutak, ohi ez bezalako erantzun zuzenak jasorik... Bestalde, kantariak eta musikariak ez zuten ohizko protagonismorik; jendea ere ez zen betiko pasibotasunean egon adoeta kantariak agintzean, beroni koro eginaz, partehartze enganiagarri batean sartu. Jandeak berak aukeratzen zuen noiz eta zer kanta, nori argia biztu bere barruko su pindarren adierazpen bailiren, nori kantuz lagundu eta nori kontrakantua egin beste kantu batez. Esan diteke, nolaerebait, kantariak agitekoa jaialdiaren dinamizakari eustea zela, behin eta berriz

kanta eta musikaren bidez jendeari beste hainbat bide sumartzeko.

Herri-Irratikoaren desafioko dago. Berriz ez da horrela egongo. Desafioak ez du berriko konturik onhartzen. Hori gora. Erdal egunkariaren isiltasunak biziki ozenagotu du desahonon oigartzuna. Ezin zezaketen besterik egin. Nola bada beren suntsiera iragartzen du deia?



“24 ORDUAK EUSKARAZ”

irratsaioa euskaldun guztiontzat pentsatua izan zen, zalantzarik gabe. Baina euskaldun guztiek ez dute modu berean egun hau bizi ahal izan. LANGILE EUSKALTZALE honen artikuluak bi arazo plazaratzen ditu. Bat, laneguna zela askorentzat larunbat goiza, eta horregatik euskal kulturarekiko ikuspegi zenbait jarraitzerik ez dutela langile askok izan. Eta horrekin, lanaren

eta kulturaren arteko eguneroko harremanak. Eta bi, euskaraz egiten duen irratiazen hedadura eskasa eta batasunik eza. Eta honekin, irratien gaurko egitura gau iraunerazteko dauden politik interesak.

KALEKO LANGILE EUSKALTZALE BATEN “24 ORDUAK EUSKARAZ”

Hiruzpalau lerro egun horri buruz idazteko eskatu didatenez, ohiturarik ez badut ere, 24

orduok nola bizi izan nahi agertu nahi nuke.

Egia da nere lan-inguruetan batzuk ez zekitelako holakorik izan zenik ere. Hala ere ni noiz hain zain nengoen. Baina 26 gaur irratia bizi izan nahi izan. Irrati hori hartzerik ez nuen izan 27an ere askotan ahotsa irratian du egiten zela konturatu nintzen gero. Zergatik ote? Eguratsen gorabeherak ote? Dena baina Donostiatik eta Loiolatik irratia gertu bizi naizelarik ere, Tolosa euskaraz gehien egiten duen

ja a



irriti hau hartzeko hain gaizki ibiltzeko eskubiderik ez dago.

27an, jaiki nintzenerako, irratia jarri nuen. Pilot anderearen entrebista zen. Gero kazetaritzaren mahain-ingurua zetorren. Ba nuen hori entzuteko gogorik, baina lanera joan behar nuen! Torrealday sarrera egiten ari zela alde egin behar izan nuen. Profesionalizatzearen beharra azpimarkatu zuen. Elkarrizketan, Amatiño, euskal kazetaritzaren egoeraz, pesimistegi agertu zela esan zidan, bueltakoan, ahizpak.

Eguerdian, lanetik korrika batetan itzuli nintzen. Kronika bat edo beste entzun nuen. Asentsiok Tolosako bilaraz egingakoa dut gogoan, nola ikastolen arazoa eta gerorako dugun leku falta aipatu zituen.

Eguerdiko "plato fuerte" Euskaltzaindiaren bilera zen. Lehenengo aldiz entzuten dut Euskaltzaindiaren bilera bat. Hau ere komunikabideez zen. Euskara irratian, euskal errebistetan eta erdal egunerokoetan nola zegoen ongi erakutsi ziguten. Zein baino zein interesanteagoak!

Irakaskuntzaren mahain-ingurua bukatu bezin laster atera ginen Donostia aldera. Jaialdira joateko asmoz. Zortziretarako Donostiako Velodromoan geunden, eta ordurako hirutik bat beterik zegoen. Gero, leporaino bete zen dena, eta jende asko, ezin sartuz, kanpoan gelditu zen. Ikusten zenez, hasi aurretik, bost ordu egon behar hura patxaraz hartu zuen jendeak, bokadillo eta guzti joan baitziren. Jende gaztea zen gehiena.

Jendea oso animatuta zehoen, kantari. Giro beroa. Giroa goraka joan zen, geroz eta gehiago. Gero, horrek Pantxo eta Peilo abeslariekin hartu zuen indar handiena. Txaloak eta Euskal Herriaren aldeko oihuak ugari. Abesti ezaguna zenean, jendeak ere kantariarekin abestu egiten zuen, ezin ixilik egon ba; esate baterako, Laboaren "Hegoak ebaki banizkio" denok abestu genuen. Benetan hotzikaraz egotekoa zen.



anaitasuna

Bizkaia
hamabosterokoa

ZUZENDARIA:

Joan Mari Torrealday

Urteko abonamendua:

- Bertorako 500 pezeta
- Latin Amerikarako 550 pezeta
- Europa eta Ipar Amerikarako 700 pezeta

Ale bakoitza: 25 pezeta.

HELBIDEA:

Pelota, 4-1.º, Bilbao-5
Posta kaxa 495. tel. 4237449

Aldizkari hau irakurri nahi baduzu, bete ezazu argi argi

ondoko txartela eta bidal helbide honara:

ANAITASUNA - Pelota, 4-1.º

Apart. 495 - Bilbao-5

Izen-deiturak

Bizilekua

Herria

Probintzia **Tel**

hezkuntza



GIPUZKOAKO HERRIARI FILOSOFIA ETA LETRETAKO IKASLEEN ASANBLADAK SARRERA:

"E. U. T. G. es un centro docente de carácter universitario para la formación humana y cristiana del profesional, la investigación científica y la difusión cultural y elevación del nivel social, económico y moral, al servicio de la sociedad y de la iglesia" (Boletín Informativo de los E. U. T. G., curso 74-75).

Otsailaren 26an Geografia eta Historiako ikasleok 2. zikloa ezartzeari buruzko informazioa eskatu genion fakultateko Dekanoari. Erantzun gisa, Deustuko Gobernu Batzordearen ezezkua eman zitzaigun. Estatutuek, Deustuko Gobernu Batzordean, E. U. T. G. ko Filosofia eta Letretako Dekanoaren presentzia akonsejatzen badute ere, ezezkua ematerakoan gure Dekanoa ez zuten bilerara deitu.

Bigarren zikloari ezezkua emateko azaldu zituzten arrazoiak hauek izan ziren:

1) Politika Unibertsitaria: Jesuiten ikastetxeen zentralizatzea ala deszentralizatzea, apirilean erabakiko dela, Manresan egiteko duten bilera batetan.

2) Arrazoi akademikoak: Irakasleen titulazio eskasa eta instalazioen (biblioteka, etab.) desegokitasuna. Arrazoi hau E. U. T. G. ko irakasleen Klaustroak Deustura bidalitako agiri batetan, argi gainditua gelditzen da. Bestalde, liburutegi osoago baten beharra aitortzen da.

E. U. T. G. ko F. ETA Lko IKASLEEN JOKAERA

Bigarren zikloa ez ezartzearen berri hartu ondoren, erabaki honek dakartzan ondorioak, ez E. U. T. G. ko ikasleen mailan bakarrik, baizik eta Guipuzkoako kultura eta gizarte mailan ere, aztertzea beharrezkoa dela ikusi dugu.

E. U. T. G. ko Gobernu Batzordea lan diplomatikoa egiten ari da, beustuk, hartutako erabakia alda dezan. Ikasleak asanbladan, geldialdi intermitenteak egitea erabaki genuen, arazoaren sustraian sakontzeko eta Gipuzkoako herria kezkatzearen, informazio kanpaina bat aurrera eramateko.

Uste dugu, gaur egun, Gipuzkoako herria, ekonomi eta sozial alorretatik ezin berezi den kultur bilakaeraren beharra planteatzen dela bereganatzen ari dela. Historiaren ikastea funtsezkoa iruditzen zaigu kultura alorrean. Eta ikasle garenaz, alor hau egungo metodologiaz, eta bertako historiagileen bidez ez dela sakondua izan aitortzen dugu. Bigarren zikloa ez ezartzeak, ikerketa zientifikoa, benetako fruituak lortzen dituen bakarra, oztopo handi baten aurrean jarriko luke sozial eta kultural mailan leharkeen ondorioekin.

Era berean, argi dago humanista ikasketak emanen liratekeen zentruaren behar gorria. Eta ikasketa humanistak bilakaeraren eta probintziaren kultur mailaren egoeraren artean dagoen harreman herstua kontutan harturik E. U. T. G. ren helburuetarik bat bezala ezarria (sarreran aipaturiko testua, hain zuzen), uste dugu Deustuko Gobernu Batzordeak hartutako erabakia, Gipuzkoako herriaren nahiak kontuan hartuz dituela.

Nahi hau guztiok, Euskal Unibertsitatearen eskaeran guztuz onartuko ditugu.

Beste zenbait ondorio:

a) C. O. U. tik heldu diren ikasleen matrikulak gutxiagotzeko eginen lirateke, E. U. T. G. en karrera osoa ezin eginagaitik. Beharpen honek E. U. T. G. ko Filosofia-Letretako sailaren itzaltzea erakarriko luke.

b) Filosofia-Letretan ikasi nahi luketen ikasleen saktatzea Espainiako Unibertsitateetan barne.

d) Gipuzkoako zenbait giza mailatako ikasleei estudiantetako ahalmenak gutxitzean, beste unibertsitate etara ezin joan beharrik geldituko lirateke. Posibilitateen gutxitze hau haundiatzeko izanen litzateke, bere ikasketak lan eginez ordaintzen dituzten ikasleentzat. "E. U. T. G. ofrece especiales facilidades a quienes, estando en condiciones de cursar la carrera de Filosofía y Letretako deseen hacerla compatible con su trabajo, y que además de clases ordinarias, esta sección tiene establecidos cursos nocturnos que se desarrollan a diario de las 18,15 a las 21,45 horas (Folleto de divulgación).

e) Diplomatu titulua emanen baliatzearen erabilgarritasunari prektikoa zabalduz lagok. Honela lehenengo zikloari, bere balioa kentzen zaio, bigarren zikloak osatzen ez badu. Horretaz beste ikasleen etor jarria mehetuz joanen litzateke.

f) Geure herrian, bertako eta hemen hazitako irakasle beharra, B. U. P. eta C. O. U. ko irakaskuntzarako, egungo egunera haundia egiten ari zaigu.

Konkretuki Geografia eta Historiako gaur egun matrikulaturik gaudenoi, bigarren zikloa ezarriko zutela hitz ematen ziguten. Ezezkoaren aurrean bi aukera ditugu.

a) Deustura joatea fakultate pribatu batetan sartzeari izanen litzateke. Estatu unibertsitatean ikasteak erakartzeko duen diru premiagatik unibertsitate pribatuen ordainak behar den diru mordo barbera eskatzea digu.

b) Deustu ez beste unibertsitate batetan sartzeari izanen litzateke zenbat sareskaera dituzten jakinik, sareskaeraren bat izanen genuelakoa gaude. Matrikulatzea ez litzateke ziurra izanen.

Egungo Geografia eta Historia ikasten dugunaren aurrean galdera zerranda bat egin eta datu hauak iortu ditugu: 100ek 2. zikloa eskatzen dugu.

% 72,6ek Historia Moderna y Contemporanea.

% 13,4ek Artearen historia.

% 8,8ek Geografia.

% 3,2ek Espainia eta Ameriketako historia.

Esandako guztiaren ondorio bezala, uste dugu Deustuko E. U. T. G. rekin eta Gipuzkoako herriarekin hartu zuen konpromiso mezu morala oso serioa dela probintziarekiko, bere kulturarekiko eta bere historiarekiko.

Gauza hau guztiok aurrean ditugularik arazo hau guztia axola zaigula deritzogu eta horregatik hau eskatzen dugun Gipuzkoako herriak bere eritzia toki guztietan ager dezala eta bere jokabidea Deustuko Gobernu Batzordea delakoari aitortzeko eskutitz eta beste edozein bidez azal diezaiola.

MUNDAIZEN. E. U. T. G. F. eta L. etako IKASLE ASANBLADAK.

DONOSTIAN, 1976. Martxoaren 18an.

Jadanik

**105 bulego ditugu prest zuretzat
eta, gainera, 50 zerbitzu ezberdin
baino gehiago; guztiok zuri
eskaintzeko.**

**Baina, hala ere, gehiago jaso nahi ditugu
Eta lortuko ditugu.**



**CAJA DE AHORROS
VIZCAINA**

Hemen irabazi guztiak zuretzat dira

EUSKAL HERRIAN

EUSKARAREN IRAKASLEAK IKASTOLAN

Ikastolaren hasieran eta ondorengo urteetan, irakasle taldea osotzen zuten andereño eta maisu guztien eta bakoitzaren eginkizuna zen euskara irakastea.

Urteak iragan ahala, ikastolako hazi eta EGB-ko haro eta maila desberdinak besarkatuz joan direlarik, irakaslegoa ere ugalduz eta mardulduz joan da; eta gaurregun aski erraza da hamabost-hogei eta gehiagoko irakasle taldeak ikastoletan aurkitzea. Ikasturteak aurrera doazen neurrian, gero eta zailago gertatzen zaio irakasle bakarrari gai desberdin guztiak behar bezala menperatzea eta ikasleei egokiro ematea. Bestalde, ba dira irakasleen desberdinkatzea eta bereiztea eskatzen duten pedagogiazko arrazoiak ere. Horrela, bada, matematika, natur zientziak, ingeleşa e. a. emateko orduan, eta EGB-ko bigarren haroan batik bat, irakasle apropos batzu ari izaten dira ikastola handietan.

Euskara aldetik ere, beronen irakaskuntza ardura guztien sorbalda gainetan berdinkiro ezartzea gero eta nekezagoa ikusten delarik, "euskararen teknikari" gisako batzu sortuz joan dira zenbait ikastola handitan. Hala ere, teknikari hauen egitekoa, hizkuntza irakasle berezituarena baino besteen laguntzailearena, textu eta material prestatzaile eta antolatzaila areago izan ohi da.

Gauzak honetan daudelarik, programakuntza mailakatu baten arauera, euskara urtez urte sistematikoki ematearen premia gero eta bizikiago nabari denez gero, maila eta haro desberdin bakoitzean zehar, euskara profesionalki emateko irakasle berezilari batzuren orduak jadanik jo ez ote duen galdetzen hasiak gara.

Euskara —eta literatura bere garaian— soilik irakatsiko lukeen irakasle hau bizpahiru mailatan euskara sistematikoki lantzeaz arduratuko litzateke. Horretara, ikastola bakoitzak bere ahalbide eta programakuntza orokorraren arauera aukeratu litzuzkeen bospasei pertsona horik euskaraz eta beronen metodologiaz eta didaktikaz ongi jabeturik egotea edo eta jabetzeko bidea ipintzea aski erraza litzateke. Bestalde, berriz, urtez-urteko esperientziak hornitu ahala, maila desberdinen arteko lotura eta programakuntza askoz hobeki gordeko lukete eta material egoki bat metatzeko eta sortzeko ere gai izan litezke.

Eta gainerako irakasleek zer? Euskararen buruko mina taldetxo honek soilik jasan baleza, ez ote litzake loak har? Ez, inola ere ez. Bospasei irakasle berezilari hauek euskararen irakaskuntza sistematikoaren zama beren gain hartzeak beste irakasleen euskal maila eta eta kezkarik ez lioke ezertxo ere kendu behar. Irakasle —eta eragile— berezilariok, nork bere mailan gainerako irakasleen euskara koordinatzen, epeko helburuen berri besteei ematen, hiztegi arazoak konpontzen eta bateratzen, guztien lana hizkuntza aldetik globalizatzen ahalegindu beharko lukete. Euskara, irakasle guztien lan tresna izango litzateke, eta ahalik eta zorrotzera, gainera, baina berezilariok izango lirateke lan tresna hori haurren espreski eta zuzenean laduko luketenak eta guztien arteko ahalegina komunizatzen arituko liratekeenak. Jakina, guzti honek talde lan hestu eta sarria eskatzen du.

Beste alderdi batetik begiraturik ere, ba du abantailik lan banakuntza honek. Ikastola bakoitzeko euskararen abiadak eta aurrerabideak sor litzakeen premiei erantzuteko ematen duen zalutasun eta arintasunaz gainera, ikastola desberdinen artean arazo horik berorik lantzeko, esperientziak trukatzeko eta beste zernahitarako ere ahalbide zabal eta aberatsak, eskaintzen ditu. Bai eta lan bilera mugatuak, ikastaldi bereziak e. a. antolatzeko ere. Hitz batez esateko,

profesionalki arituko liratekeenez gero, profesional mailan ikastolako euskarari erantzun egokia emateko gai izango lirateke eta etengabe beren buruak gaitzen ihardungo lukete.

Eta azkenik, diodan hau ere: zenbait herritan, euskararen ikasteko jendeak ageri duen egarri eta sugar horri erantzuteko ere, ikastolako irakasleez aparte, behar adina prestatutako korik ez legokeen tokietan, ikastolako euskararen irakaskuntza berezilariok izan litezke horretarako aproposenak. Ikastolaren bere ingurua euskalduntzeko duen erantzukizunaz sakon jabeturik baldin badago, duda-muda eta akiakularik gabeko saiatu behar du, aldamenen dituen beste erakundeetara ikasle eskabideei erantzuten, bere irakasle gaituok eskaintzen eta plangintza orokor baten barruan ikastolaren eragina hedatzen. Inori mesede egiten diolakoan ez baina, ikastolaren ingurunea euskalduntzen ahaleginduz, bere buruari indar ematen ari delako baizik.

X. Mendiguren

FUNDICIONES ARRIARAN S.A.


LABE
ELEKTRIKOTAN
EGINIKO ALTZAIRU BEREZIAK,
TXATAL
MOLDATUTAN

LAZKAO
(Gipuzkoa)
tel. berria 881200



GASTEIZ

BURRUKAREN IRAKASPENAK



ustez, hiru gauza batez ere izan dira:

- Batsunerako deia eta eragina.
- Erabaki guztien iturria eta azken hitza.
- Langile burrukalarien erakunde errepresentatibo bakarra.

Asanbladok Gasteizko langileontzat eta herri osoarentzat izugarriko demokrazi esperientzia suposatu dute. Langileria-ontzat benetako demokrazi eskola gertatu dira. Eta asanbladoi esker lortu dugu burruka kaleratzea ere, eta, bide batez, herri osoaren solidaritatea lortzea. Asanbladak lantegietan, elizetan, eskoletan eta hauzoetan, eta langileek, estudianteeek, etxeoandreek, salerosleek eta hauzokideek parte hartuz.

NEGOZIATZE BATZORDEAK

Asanbladan aukeratuak. Hauxe dugu, greba zuzendu eta zentralizatu duen erakundea.

Negoziatze eginkizun honetan zehar, mailaz maila zenbait pauso eman behar izan dute, burrukaren bideak eskatzen zuen heinean: burruka hedatzea, koordinatzea, autodefentsa, burruka bideak proposatzea etab.

Hasera batetan lantegi bakoitzean aukeratuak izanki, sindikal ordezkarien sustitutu izan dira. Baina gerora, Batzorde horietan, burrukarako prest dauden beste herri sektoreen ordezkariak ere onhartzen dituzte (estudianteak, hauzordezkariak, etab...), eta bide horretan grebaren egiazko batzorde bilakatzen da.

HERRI SEKTOREEN SOLIDARITATEA

Herriaren erantzun hau era askotarikoa eta garrantzi handikoa izan da (herri erantzun hau gabe, ezin zitekeen pentsatu ere egin Gasteizko burrukaren arrakasta): era guztietako asanbladetan eta manifestazioetan parte hartuz, grebarientzat dirua biltzeko batzordeak antolatuz, taberna eta komertzioek beren ateak hitxiz, etab. Estimagaizta da benetan herri sektoreon laguntza eta bultzada.

BURRUKAREN KALERATZEA

Gasteizko langileen burruka gogorrek guztiz beharrezko zuen kale mailaraino iristea. Entrepresarien egoskorkeria hausteko, ez zen aski langileon batasuna. Entrepresariei aurpegira bota behar zitzairen, Gasteizko greba luze eta zentzugabeak, bere ondorio kalkulagaitzekin, errudun bakar bat zuela: Entrepresarion Kontseilua, bere egoskorkeria. Eta hau, burruka kaleratuz, herri osoak manifestazioetan eta burruka egunetan parte hartuz lortu genuen. Nola ahantz martxoaren 3tik 8ra bitarteko egunak?

EUSKADIREN ERANTZUNA

Martxoaren 3ko egun beltzak ondorengo egunetan Euskadi mailan lortu duen erantzuna guztiz aparta izan denik nork uka? Arrakasta bikaina, bikainik bada! Urtarrilaren 9an Forjas lantegikoak kaleratu zirenean, beharbada ez zuen inork uste, haien burruka "ekonomikoak" horrelako amaia izango zuenik.

Dudarik gabe, hau dukegu, Euskal Herriko langileriak orain arte eman duen erantzunik bateratu eta jatorrena. Euskal langileria bide onetik abiatu zaigu, eta hortik segituko duelakoan nago. Hala bedi!

JUANJO URANGA

Gasteiz, apirilak 3, 1976

Gasteizko grebariak lantegiratuak ditugu berriki. Baina ez beza inork pentsa, burruka hemen amaitu denik eta are guttiago konpondu denik. Lagileria berrak gogor irauten du lantegi barneetan. Grebarien eta "eskirolen" arteko harremanak jasan ezinak bilakatu dira, eta lantegiek justuan dihardute lanean. Negoziazioak geldirik daude oraingoz. (Hurrengo artikulua batetan emango dugu honen berri.) Oraingo honetan, Gasteizko greba luzeak eskaintzen dizkigun burruka bideez arituko gara, bide hauek posibletu baitute greba horren iraupena eta arrakasta; eta langilegoarentzat interesgarriak direlakoan ematen ditugu.

1976.eko martxoaren hausterre eguna, euskal langileen buru-bihotzetan suz eta amorruz iraririk geldituko da. Gogoan ditugu Martinez Ocio, Aznar Clemente, Barroso Chaparro eta Castillo Garciaren izenak, Gasteizko kaleetan balaz josiriko langile gazteon izenak.

Baina egun hori ezin dugu bereizi, Gasteizko langileriak urtarilaren 9tik zeraman burrukaren prozesutik. Prozesu horren barnean aztertu eta ulertu behar da egun gogoangarri hori. Bi hilabete luze horietan, esperantzaz eta etsipenez, baina beti ere urratsak segurtasunez emanez, Gasteizko langileriak zenbait burruka bide asmatu ditu eta gorputz eman ere egin die bideoi.

ASANBLADAK

Greba luze honen benetako protagonista bakarra eta funtziozkoena herri osoa izan dela aitortzen dute langileek berek gaur egun: "Asanbladei esker irauten dugu", "asanbladarik izan ez balitz...", "lanera ere, asanbladak ukatu dizkigutelako eta ukatu dizkigutenean itzuli gara itzuli ere". Zertan datza, bada, asanbladon garrantzi eta eginkizuna? Asanbladok, nire

EUSKAL HERRIAN



ipar aldea

MARTXOAREN 8an, KONTSEILU JENERALERAKO HAUTESKUNDEEN LEHEN ITZULIA EGINA IZAN DA

Martxoaren 8an, Ipar Euskal Herriko hamar bat kantonamendutan egin dira kontseilari jeneralen hautatzeko bozketen lehen itzulia. 45 kontseilarigai presentatzen ziren. Jadanik, lehen itzuli honetan, 5 hautetsiak izan dira:

Angelun: Mendiboure (Erdikoa. Euskal departamenduaren kontraKoa).

Expeletan: Labéguerie (Erdikoa. Euskal departamenduaren kontraKoa).

Maulen: Goux (Erdikoa. Euskal departamenduaren kontraKoa).

Donapaleun: Dubosq (UDR. Euskal departamenduaren kontraKoa).

Baigorriin: Dermit (UDR. Ez Euskal departamenduaren kontraKoa, baina ez biziki aldekoa ere).

Martxoaren 15ean, beste itzuli bat egingen da, Miarritzen (Boroira eta Destrade); Hendaiain (Poulou, Belouqui, Pery), Donibane Lohitzunen (Ithurralde, Poletti), Uztaritzen (Lastrade, Luberriaga), Bidaxunen (Lasserre, Baraton).

Bozketa horien ondotik, ateratzen ahal den irakaspena ez da bihotz altzagarrria bihotza euskaldun eta ezkerrean dutenentzat. Euskaldunek berriz ere, jaunskilen alde eman dute boza. Irudiz, euskal departamenduaren alde edo kontra izateak ez du gauza handirik aldarazi. Lehengoak berriz hautatuak izan dira; lehenean ez bada, bigarren itzulian izanen baitira. Aldakuntza bakarra: Dermit (Intchauspereen idazkaria) Baigorriin, bere kargua utzi duen Etxeberri Aintxart-en ordean. Marc Legasse-k Hendaiako kantonamenduan, 313 boz bildu ditu, hots % 3,5.

EHASek, kontseilari gairik ez zuen presentatu.

* * *

“LAUBURU” BATASUNAREN BILTZARRE NAGUSIA

“LAUBURU” Batasuna ez da biziki ezaguna. Haren saila, egia erran, oso berezia da: euskal hilharrien begiramendua, eta bereziki “harri-gizonena”.

Aspaldi honetan, ebasketa anitz egin izan da, ipar aldeko herrisketako hilherrietan. Halabaina, euskal harri gizon zaharrek oso ondo saltzen omen dira Parisen eta urrunagoko bazterretan. Orain arte, inork ez baitzuten zaintzen, ez zen neke haien hartzea, eta zenbaitek sakelen ondo bete diru bildu ahal ukan du horrela.

Duela hiruzpalau urte ordea, bi gaztek Mikel Ouvert eta Jean Etxeberri-Aintxart, gauzak zeuden bezala egoten ahal ez zirela pentsaturik, zerbaiten egiteko xedea hartu zuten. “LAUBURU” izeneko Batasuna eratu zuten orduan, eta lanean hasi ziren.

Haien lanaren lehen fruituak agertzen hasiak dira. Otsailaren azken honetan, Batasunaren Biltzarre nagusia egin baitute, alferrikako lana izan ez dela erakustera erabaki ahal ukan dute. Herri guztietako alkate eta erretorak jakinarazi jarriak izan dira, Herriko aberastasun horien zainketa berriaren gain hartu behar dutela. Batasuna, bere aldetik, hiltzaile guztietako harri-gizonen bildumaren egiten hasia da. Sekulako lana da, herriz herri ibili behar baita, harri-gizon bakoitzaren fitxaren egiteko: non, nola, noiztik ezarria den, harri argakia. Hautsia bada, haren konponketa. Eta bistan dago langile gutti horretarako.

Bada, inor balego igandeetan enoatzen dena, bada orain denbora zertan eman.

LANGABEZIA

Departamenduan, aurtengo urtarrilean, 11.051 langile eskaera fitxatu dira, erantzunik gabe gelditu diren (11.126 abenduan, 9.118 joan den urteko urtarrilean). Horien beraz, langabezia ber heinean egoten da.

Etxegintzan hobekitze bat agertzen hasia bada, zuzen gintzan gauzak gaizkituz doaz. Donibane Lohitzunen sortutako kinka xarrena: “Soubelet” kontserbategian, 20 langileko taldea ukan baitute, eta “Itxasokoa” kontserbategiak, Martxoaren erditik 6 hilabetetarako, hertsiki beharko duela erraten du baita.

EUSKAL ERREFUGIATU BATEN AUTOAN EMANA, BOMBA EZ DA LEHERTZEN

Otsailaren 29an, igande goizarekin, 8 orenak hirian, Donibane bizi dirin bi euskal errefugiatuak xantza ederrik ukan ezin izan gutik egin baitu ez badira zenbait itsaso-aitzindariren gogor ederki airatu. Halabaina, beren autoan igan eta abiatu gogor ko arrabots arraro bat entzun dute, aurreko eskuin aldeko rringari kontra zerbait balego bezala. Giroa ontsa egina izan jadanik, ez dira luzaz egon gogoetaka ea zer deabru izan ahal zen: paketeño bat, haien jauzterazteko xarmanki murriztua. Gertatu da ordea, orain egon behar luketen goiko Batazaren greban jarria zatekeela, eta autoaren abiatzeak lehertzen zi behar zuena ez dela egin.

Bi errefugiatu horien etxe aitzinean holako zerbait izan zen lehen ere. Aitzin hartan berriz, bomba lehertu ere lehertu zen, baina inor hil edo grabeki golpatu gabe, jomuga izan errefugiatuaren bi haurrak doi bat zaurituak izan baziren ere.


Nor ari ote den holako jostetan ez da neke asmatzen. Kasu hurrengoan.

* * *

VEYRINen “Les Basques” LIBURUA BERRIZ ARGITARATUA

Philippe Veyrin-en “Les Basques” liburu famatua, mende honaindiko euskal popularean parteaz egina izan den liburu hoberenatarik berriz argitaratua izan da. Nahiz aspaldian argitaratua (1943.ean), balio du orain ere haren irakurtzeak, Ipar Euskal Herriko historia, geografia eta folklorea zerbait ezagutu nahi badira. Bostgarren argitarapen honi, Haritschelhar liburuak idatzi kapitulu berria bat eratu izan zaio, gerraz gertatutako aldakuntzen aipatzeko. Beharrik ere, gaur egun, euskal popularean arazoa ez baita batere gisa berera agertzen ipar aldean.

IBERIAN ZER



DESERDIRAPENA

Itxuraz politik arazoek aldaketa handia hartu behar dute hurrengo hilabeteetan. Deserdirapenaren nahia aho guztietan dabil, eta eskualdeak indartzeko premia ikustean dute guztiak.

Idea on batek, proiektu on batek, premiek edo nahiek, Cadizekoak edo Santanderkoak, Alikantekoak edo Lugokoak, guztiak Madrileran joan behar dute. Antza denez Madrilen irakite inon baino hobeto arazo guztietako gora-beherak, eta horren dena, Madrilen erabaki egiten dute dirua nori eman eta nori ez, nori lagundu eta nori ez, nork du arrazoia eta abar. Madrilen dena dakite.

Egoera hau ez da logikoa zeren eta problemak norberak baino hobeto ez daki inork nola zuzendu. Beste aldetik, Madrileran joan, beti eskatzen ibili, eta askotan hainbeste adierazpen ondoren eskubideak eta eskakizunak lortu gabe ikusteak, denbora alferrik galtzeko eta gizona mesprezatzeko ez beste izaten da. Orain gaude sasoi egoki batean Madrileko jabetasun gogorra bizitzaren gai eta mementu guztietatik kentzeko.

Demokraziaren giro berriarekin Estatuaren antolaketa beste era batez moldatu nahi dute, Gobernu eta Boterea Herriarengandik hurbilagoa egon daitezen. Legislatiboan Gana- rara bietan ipini, Diputazioak eta Udaletxeak indar eta arazo gehiagoren erantzunkizuna eduki dezaten, oraingo giroan dauden asmoak dira.

Hori guztiari ondo dago, baina egiazko aldaketa lortu nahi badute eta Boterea eta Gobernua Herriarengandik hurbilagoa egon daitezen, deserdirapen fisiko bat lortzea premiazkoa da. Ez bakarrik legeetan eta funtzioetan, geografikoa baizik. Madriletik at atera beharko litzateke hor dauden Organismo eta Consejo gehiegi. Halegia, orain Goiko Ganbara eta Beheko Ganbara atera beharko lukete, bata Salamancan ipintzeko eta bestean Sevillan esate baterako; Tribunal Supremo Zaragozan eta abar.

Honelako sistema bat erabiltzen dute Estatu batzutan eta ondo pozik daude. Legislatibo eta Judizialak lan egiteko eskatasun handiago edukiko balute aurrerabide interesgarria izango litzakete, eta erditasunik gabe Herri osoaren nahia, ideiak, premiak eta neurriak hobeto ikusi eta hartu egingo litzakete.

Ejekutiboan ere hobeto egongo litzakete Ministerioak banaturik egongo balira, eta ez erabakiak hartzeko osoa Madrilen bakarrik egoteaz.

Batzuk esango dute alde guztietatik banatuz gero Ministerioen artean harremanak edukitzea zaila izango litzatekela, eta gainera horrelako harremanak kasu askotan eduki behar direla zeren eta arazo batzutan Ministerio bat baino gehiagoren eritzia kontsultatu behar baitira.

Baina atxakia honek duela hogeitau urte indar guztia gaitzen da oraingo komunikabideekin, telebista, telefonoa, erregazkinak, autopistak etabar. Gainera lau mendetan zehar Ministerio guztiak elkarturik egon dira Madrilen eta haien arteko harremanak eta koordinaketa hain eskasa izanik ezin direke guttiago egin.

Honelako deserdirapenarekin Madrilen lasaiago geldituko litzateke eta probintziak indarturik; eta hauxe da bide bakarra

egiazko eta errealitatezko deserdirapen bat lortzeko. Baina hau ez da gauza erraza izango zeren eta oraindik interes asko baitago Madril olagarro lapurtsu baten alde, eta demokrazia eskatzen duen Herriari sasi deserdirapen batekin ea engaiatzen duten dihardute.

G. O.

AUSKALO ZER GERTATUKO DEN

Espainiako politika egoera kinka larri batetan dago.

Gerraz geroztik politikagintza popularengandik urrun dago, gerra haren sortzaile eta irabazle izan zirenek ez baitute inoiz boterera beste inor heltzeko aukerarik utzi.

Mendebal Europako jokabidearik oso aparte beraz, demokrazia formalaren oinharirik gabe.

Batetik baldintza sozioekonomikoengatik eta besterik gerra irabazi zutenen belaunaldia galtzen ari delako —batez ere beren buruzagia zen Franco jenerala hil zelako— posible eta beharrezko ikusten da egitur aldaketa sakon bat.

Oposizioak aldaketa ezezik etena ere nahi du, errejimen zaharraren egitura eta moldeak baztertu eta demokrazi bidez jendeak adieraziko lukeen borondatearen arauerako taitu berriko ibilbideak ipintzea halegia.

Agintariak berek ere demokrazia aldera abiatu nahi dutela diote.

Nolabait esateko, agintean daudenek orain arteko legeetan eta erakundeetan oinharrituz, lege eta erakunde horiek aldatu nahi omen dituzte.

Espainiarren batz besteko pentsamoldeak, bizimoduak eta are kaleko eskabide ozenek nahi eta nahiezko egiten dute aldaketaren beharra.

Demokraziaren aldeko presioa asko handitu da azken aldi honetan, edo, hobeto esan, hainbeste denboran erremediorik gabe ezkutuan egon behar izan duena ezin da gehiago agertu gabe egon.

Statu quo politikoaren jabeek hartu duten jokabidea egoera honen aurrean, orain arteko errejimenaren sostengu diren instituzio eta legeak ahalik eta gehien iraun eraztekoa eta egitura ahalik eta gutien aldatzekoa da. Adibide batzu aski izanen dira:

Oraino Espainian alderdi politikoak debekatuta daude, zenbait bilkuren aurrean agintariak ez ikusia egiten badute ere.

Herbesteratu gehienei itzultzen utziko zaiela esaten da, baina itzultzen badira legezko garantia bat izateko ordez zenbait agintariren hitza besterik ez dute izanen.

Dauden legeak betez gero, gartzelek gainezka bete beharko lukete legea onhartzen ez duen hainteste batzarre, manifestazio, liburu eta abarrekin.

Agintekak berak ere ez du legea herstuki betetzen.

Batzutan kaleetako manifestazioak asaldurik gabe gertatzen dira eta hurrengoan okasio berdintsutan heriotzeak egon dira. Legeak giza eskubideen babes eta sostengu bezala eman behar lukeen segurantzak falta du eta horrek arrisku handiak ditu.

Zerk garrantzatzen du aldaketa bat izanen dela? Gobernuaren lehen mailan dauden pertsonen biografiek ez behintzat. Errejimen zaharrari oso atxekita egon den jendea baita.

Auskalo zer gertatuko den eta horixe da tristeena, bide batzu finkatuta ez edukitzea, politika indar guztiek normaliki parte politikagintzan har dezaten.

ANDONI SAGARNA

IBERIAN ZER

EUSKAL IZENAK OFIZIALKI ONHARTZEKO BIDEAN

Martxoaren azken egunetan galego, katalan eta euskarazko pertsona izen guztiak ofizialki onhartzeko legegai bat eratu du Madrileko Gobernuak. Erabaki hori aurrera badoa, hemendik aurrera haurrei gurasoen gustuko izenak ezarri ahal izanen zaizkieke, gaztelaniapeko orain arteko morrontza lotsagarria gehiago jasan gabe. Honez gainera, orain arte toki ofizialetan geure izena gaztelaniaz ipintzera behartuak izan garenok ere, geure hizkuntzaren arauera jartzeko era edukiko dugu haurtegi eta karnet berrietan.

Izan ere, ba zen horretarako garaia. Makina bat istilu eta haserre ekarri digu galego, katalan eta euskaldunoi gaztelaniaren orain arteko inperialismo eta giza eskubiderik onhartu nahi ez horrek. Poztu egiten gaitu, noski, gauzak horretan aldatzera doazela ikusteak, baina ez beza inork guregandik inolako eskerrik espera horregatik, horrenbeste eta gehiago zor zitzaigun eta. Zuzenki joatekotan, gainera, azken berrogei urteotako bereizkeria lotsagarriagatik barkamena eskatu beharko litzaiguke publikoki.



erlijioaz

EKIALDETIK BETI ARGIA

Frantziako eta Belgikako familia asko kezkatuta daude. Kristau Elizek, eta juduek berdin, ez dute beren urduritasuna ezkututzen. Ehundaka eta milaka gazte, neska eta mutil, beren familia, lagunartea utzi eta jainko berri bati eta bere profetari, Moon jaunari, jarraitzen zaizkio. MOON sekta honen sinestunak bi milioi ba omen dira munduan zehar, gehientsuenak Korean eta Ipar Amerikan.

Zer da Moon sekta

Zer da ez baino nor da Moon jauna galdetu behar da. Moon ez da aspaldiko maisu mitifikatu edo jainko bat. Moon bizi da oraindik. Eta sasoirik onenean. 56 urte besterik ez ditu. Ipar Korean jaio zen Sun Myung Moon. 16 urte zituela, Jesus berbera Jainkoaren erresuma hemen lurrean eraikitzeko mezuarekin agertu omen zitzaion.

1951. urtea zen, komunisten menpean hiru urte kontzentraren zelai batetan igaro ondoren, "Munduko Kristautasunaren Batasunaren Elizari", bere inperioari, halegia, hasera ematen dionean. 1960ean *Jainkozko printzipioak* liburuan bildu zuen bere doktrina. Geroztikakoa da munduan barrera izan duen arrakasta.

Arrakasta hau ekonomikoa da batez ere. Moon jaunak dela hamabost bat urte sosik ez zeukan. Gaur New York-eko *villa* zoragarri batean bizi da. Bi yaten, jet baten eta

Baina oraingoa aurrerapauso bat da eta ongi dator ere, geure hizkuntzaren ofizialtasun osoa lortu arte, luzea geratzen zaigu ibiltzeko. Hor daude, beste gauza batzuen artean, euskal, galego eta katalanezko deiturak berena ez duten orthographia eta fonetika batez ezazu. Noiz izanen dira *Aranzadi Arantzadi*, *Echeverria Etxebarria*, *Sarasola Saratsola* eta *Querejeta Kerexeta*? Noiz ditugu geure herrien izenak euskaraz, eta *Guernica*, *Malgúia*, *Ceánuri*, *Lazcano* eta *Huarte*-ren lekuan *Gernika*, *Malgúia*, *Zeanuri*, *Lazkao* eta *Uharte* irakurriko? Zer eskubideak gaztelaniak bereak ez dituen izenak bere idazteko morrontzaperera erabiltzeko? Noizko, kaleak, bidesentzabetelebiga, irratia eta administrazio osoa erabat euskaratuko?

Zeren horik guztiok lortzen ez ditugun artean, irakurketa zuzen batera, geure eskubideak arlo horietan moztuak edukitzea ditugun bigarren mailako hiritar batzu besterik ez bailaketen.

Xabier Armendariz

Lincoln blindatu baten jabe da. CIA-ren babesaz gain irakurleak antzemango dio gizon honen zergatik duen interesik CIAk), eskolta pertsonala dauka. Korean lau industria kontrolatzen ditu, eta "ginseng" izeneko edari misteriosoa egiten duen laborategia eta harma arin fabrika bat ere bereak ditu. 11 miloi dolarren ondasunak gaurba omen ditu. Eta gainera ba du, lau bider dibortziatu ondoren, 1960.ean 18 urtetako ikasle zela ezkondu zuen emazte lirain bat. Baina arrakasta ekonomikoak ba du zerikusirik erlijioazkoarekin. Milaka jende gizon honen argazkiaren aurrean otoizka belarrikatzen da.

Doktrina xeble bat

Moon-ek, Adam eta Kristoren parean, kategoria berdinean, ipintzen du bere burua. Jesus gure salbatzailea da. Izpiritualki garaile atera zen; baina honetako erresuma bat jasotzeko gauza ez zen izan. Bere ezin hori, ezkondu eta sendi bat sortu nahi izan ez zuelako eta inperio baten buru, Israeleko benetako erresumaren buru, jarri ez zelako da.

Eta Jesusek kale egin zuen eginkizun hau betetzera. Jainkoaren erresuma hemen lurrean eraikitzen, hain zuzen, bidali du Jainkoak Moon jauna. Ez dakit asmatuko duen, Jesusen buruan eskarmentaturik edo, ez dago behintzat andrerik gabe eta defentsa harmaturik gabe bizitzeko egina.

Doktrina manikeista da. Ongia eta Gaitza hor nagusi dabilta. Indar onak gaiztoen kontra daude. Jainkoa Sata-



nen aurka. Satan, berriz, marxismoa eta komunismoa da. Eta Moon da Satanen gatibusunetik mundua askatuko duen Kristo berria. Mesias boteretsua, "Salomon baino jakintsuagoa", "Jesus bera baino bihotzberagoa".

Erreinu honek "sinesmenaren lurraldean", Hego Korean, ditu bere erroak, bere izpirituzko indarrak. Ipar Amerikan bere beso eta indar materialak. Bion artean mundua garaituko dute. Honez gero aspaldi garaile behar zuen Erreinu honek, "1954.ean Mac Arthur jeneralak Hego Koreako mugan bildurik zeuden 600.000 txinatar soldadoen gain bonba atomiko batzu bota balitu".

Ipar Koreak Hego aldera abiatu nahi badu, gurutzada bat antolatuko du Moon-ek. Marxismo eta komunismoa-rikiko amorru hau bera dio Islam-ari ere.

Jarraitzaile zintzoak

Moonen jarraitzaileak gazteak eta ikasleak dira batik bat. Baina ez guztiak. Lanik gabe edo arazo gordin batean larri aurkitzen diren gizon emakumeen artean ere erreklutatzen dute.

Nola erakartzen dituzten? Sistima zaharra da. Antzeko sektek bezalatsu, kalean edo etxean inguratzen zaitue. "Mundua gaizki doa", "bakea behar da", "Jainkoagan sinesten duzu?", "zatoz gurekin", etab. entzun ondoren, nolabait bilera batetara eraman eraziko zaitue. Zure jakin-minak bultzatuko zaitu. Han kanta eta konferentzia sutsu artean, lagunarte gozoa, eta bakearen eta Jainkoaren alde lanean ari diren adiskide leialak topatzen dituzu.

Elkartean egun batzu, adiskide jator horiekin bizitzeko erabakia hartzen baduzu, urrats handi bat emango duzu. Jangartuz, lo faltaz, ito beharreko lanez, eta etengabeko hizketaz, eta hori bai beti giro goxo batetan, ideia bakar bat sartuko dizute kaskoan. Orain arteko iraultzek, erlijioek, eta gaurko zientziak porrot egin dute. Moon da Maisu berria, paregabea. Bere mitoa erabiliko dizute gau eta egun. Ez dute pentsatzerik nahi, ez bakarka ez taldeka. Kontrakorik baduzu? ez da deus esan behar. Sinets ezazu. Egun batean konprenituko duzu. Lau sinplekeri horik eta ahogozatzen duzun famili giro bigun horrek sare hestu bat josten dute zure adimenean eta nahimenean. Eta pixkari-riak guztien senide sentitzen zara. Moon da denon aita eta bere emaztea, ama. "Gure Aita" esaten duzunean ez dakizu Jainkoari edo Mooni errezatzen diozun.

Aste guttiren buruan, pentsaeraz eta izaeraz aldaturik gelditzen da bat. Drogaturik bezala sentitzen dituztela beren buruak diote esperientzia hori bizi dutenek. Problema guztiak elkarrekin konpondu dizkio. Lan arazoa, diru ardura. Sexo ardura ere bai. Neska mutilek ez dute lehen-go maitasun egarririk. Eta hori aparte lo egiten dutelarik. Moonek sexoa satanen bat gordetzen ote den edo uste du. Eta ez dirudi munduaren salbatzaile berriak berak ere deabrutxo honekiko kontuak garbitu dituenik. Alproja horrek bost bider ezkondu erazi du, eta ziri gaiztoagorik ere sartu izan dio: besteren emaztearekin zebilelako, beste arazozi batzuren artean; komunistek kontzentrapen zelaira sartu zutenean bezala.

Eta liluratutako jarraitzaileak elkarre horri izena ematen badio, izana ere beharko dio eman. Bere izerdia eta odola. Baina hori gutti da. "Bere ondasunak, atzokoak,

gaurkoak eta biharkoak sektari uztera konprometatzen da". Eta logikoa da. Denok senide bagara, ez dago nererik eta zurerik. Dena denontzat beraz. Zure banku diruaren, edo ondarearen ordezkari izendatuko duzu beharbada elkarte hori. Hemen dago Moon sekta honek egin duen dirutzaren behi ezkutua.

Ezkontzen bazara ere elkarteari zor zatazizkio. Ihaz, Seulen, 1.800 bikote ezkondu ondoren (horretarako andregaiak argazkietatik aukeratu zituen Moon jaunak), bost urtetarako elkarrengandik banatu eta sektaren alde lan egiteko eskatu zien.

Eta galdera serioak

Moon sektaren doktrina xelebrea izango da, eta bere jarraitzaileak teknika psikologiko bizkorrez erabiliak egongo dira. Baina hala eta guztiz ere fenomeno honek galdera zorrotzak aurpegiaritzen dizkigu. Zergatik kristau elizetatik pasa diren gazte horiek, eta kristautasunaren doktrina ikasi dutenek, eta beharbada sinetsi, itxuragabeko kredo sinkretista hori onhartzen dute? Zer ematen die sektak, beren familian, lagunartean edo ezkongai harremanetan topatzen ez duenik? Zer dela eta, kristauen edo juduen Jainkoa arrazoiz astunez ukatzen duen horrek Moonen jainkoa eta beone profeta bedeinkatzen ditu?

Soziologo, filosofo, teologo eta guraso asko gaurko kontsumo gizarte hau aztertzeraz bultzatu du Moon-en sektaren fenomeno honek. Betetasun eta oparotasun azaleko baten azpian, izugarritzko hutsune beltza somatzen diote gizonari. Gizakia, bakar, huts, triste, nazkaz gainezka dago. Hiri handietako gizonak ez du berotasunik eta maitasunik ikusten. Pilatuago eta baztertuago bizi dira. Jainkoagandik umezurztu zena orain gizonagandik ere umezurztu egin da.

Errorrik gabeko gazte horrek edo gupidarik gabeko gizartearen hoztasuna bere haragian sufritzen duen langile horrek, ez harritu orduan berotasun apur bat ematen diñon komunitate horri bere bihotza ta bizia eskaintzen badio. Dela Moon sektari, dela Jehovahen testiguei, dela beste edonori. Bihotzik gabeko sasi maisu manipulaztaile horiegan aurkituko du bere pertsonalitatearen sostengua eta balore krisiaren gaitz larriak jotako zibilizazio honek erakusten ez dizkion erredua eta norabidea. Horik mirestuko ditu. Eta maitatuko. Horik mesias berrizat kantatuko, eta berorien aurrean ahozpeztuko.

Honek bide beretik, mendebaleko kristau Eliz nagusien elkarte bitzta nola doan galdetzeraz garamatza, Frantziako apezpiku batek esan duen bezala. Gure bilkura liturgiko eta bestelakoen sendetasun formala eta sinestunon arteko harremanen hoztasuna salatzeraz. Gure fedea eta bere esijentziak zer diren eta nola aurkezten eta ulertzen ditugun aztertzeraz.

Moon sektaren tankerako erlijio berrien ugalketari, beren proselitismo lotsagabearen eta manipulazio azkar batetan esplikabide aiosorik aurki diezaiokegu. Baina hori lasaigarri bezain arin eta enganiagarri litzateke. Moon Mesias honek eta bere sektaren arrakastak gaurko zibilizazioaren eta Eliz bizitzaren sakonketara bultzatzen bagaitu gaitz erdi izango da.

Manolo Pagola

iPar aldeko ikastolak



J-P. SEILLIEZ SEASKA-KO LEHENDAKARIA

Ikastolek ez dute iparraldean, mugaz beste partean duten arrakasta bera. Hala eta guztiz, konparatzerik badago ere, zerbait hasi da; eta, guti ezagunak diren iparraldeko ikastolak hobeki ezagutu beharrez, Seaska duen tu batasuneko lehendakariarengana jo dugu. Hona zer ihardetsi digun.

—Duela orain sei hilabete, lehendakari-ritzat hautatu hindutelarik, zertan zen Seaska? Nola aurkitu huen?

—Seaska orduan ez zuan gauza berri bat izan enetzat. Ba zian sei hilabete jadanik, Seaskako idazkaria nintzela. Haren egoera eta ari moldea ondo ezagutzen nitian, beraz. Ba niekian bereziki, Seaska zabalduz eta handituz zihoala, eta zabal-
tzeak eta hedatzeak ohi dakartzan buruhaustek aurkituko nituela: erakunde-zko problemak, haste-ko, eta informaziozkoak ere bai. Lehen jende guti izanik, denok elkar ezagutzen genian; orain, aldiz, Seaska handitzearekin, ez duk gehiago horrela. Ezin zezakeagu arras lehengo molde berean segi; funtzionamendu edo ari molde berri bat asmatu behar diagu. Halabaina, ez duk dudarik, talde ttipi baten ari moldea, batasun handi batena ezin izan daitekeela. Muga bat ba duk bien artean, eta muga horren iragatea diagogikiguk orain.


Kasu! Talde "handi" bat diodalarik, kontutan

har, gauzak hemengo heinaren arauera ikusi behar direla: ez gaituk Gipuzkoan edo Bizkaian.


—Prezeski, aipu duan Seaskaren handitze hau zer izan da zuzen? Hastapenetik gaur arte zer bide egin du Seaskak?

—Seaska, 1969.ean sortu zelarik, biziki talde tipia zuan. Lehen ikastola, orduan, Baionan egiten ziaten, 8 hurrekin. Claire Noblia-k —ni izendatzen— arte Seaskako lehendakaria izan denak— sortzen zian. Geroztik, haren lanari esker bereziki, handia egin diate ikastolek iparralde honetan. Egun, 17 ikastola dituk, 350 haur biltzen dituztenak; 21 irakasle, lau irakaslegai, eta hiru bulegu langile. Hamazazpi ikastola horietarik, bi dituk urtez gorako haurrentzat, esan nahi baita, lehen mailako irakaskuntzari dagozkionak.

Hazpen eta handitze hau, geografiaren aldeko ere nabari duk. Esaten nian bezala, Baionatik hasi zuan Seaska, gero itsas hegi osora zabaldu zuan barneko aldera ere ondotik, aurtan Paueraing hedatu baitugu besoa.



enbat haur



IKASTOLEN HEDAPENA

—**Handitzeak buruhausteak ohi dakartzala esana didak. Zer dira gaur egungo zuen problemak?**

—Beti bezala: dirua, tokia eta haurren biltzea. Noski, hirurak elkarri lotuak.

Dirua, hasteko. Xahupen guztiak gurasoek eta laguntzaileek hartzen baitituzte beren gain. Egia duk, zenbait Herriko Etxek eta departamentuko Kontseilu Jeneralak laguntzen gaituztela; baina horrekin guztiorrekin ere, ororen buru, nekez ari gaituk diru aldetik.

Tokia ere. Ikaste gela gehienak, Herriek edo Elizak emanak ditiagu; gehienetan, ordea, ez dituk horretarako eginak, eta leku txarrean diaudek. Gisa guztiz, Herriko Etxeentzat eta Elizarentzat ere problema bat duk, haien beharra beste zerbaitetarako baitute beraiek. Tokia ematen (hots, prestaturik ematen) ez digutenean, erosi egiten diagu. Beharrik, gutitan izan gaituk horretaratuak: bi herritan bakarrik, Uztaritzen eta Senperen.

Haurren biltzea, azkenik: hots, ikastoletan gero eta haur gehiagoren ibiltzea. Euskal kontzientzia-tzea, guk nahi genukeen baino emekiago aitzinatzen duk. Ikastolaren ideia zabaltzen ari bada ere, pixkanaka, baratxe ari duk, mila motatako traba eta aurreritziren aurka baitoa.

—**Seaska irakaskuntza ofizialetik aparto duk. Zer da haren "estatu"?**

—Garbi mintza nadin. Ikastola, guretzat, euskal nazio irakaskuntzaren "umegaia" duk. Seaskak ez dik, beraz, deus ikustekorik irakaskuntza ofizialarekin, hots, frantses nazio irakaskuntzarekin.

Lege aldetik, Seaska 1901.eko legearen arauetarako batasun bat duk: Iparraldeko ikastolen biltzarra; ikastola guztien federapena, nahi bada. Ikastolak ez dituk arras beren aldetik ari. Autonomoak dituk bai, baina ez guztiz elkarretarik bereziak. Urte guztiz, Biltzarre Nagusia egiten duk, guraso, irakasle eta latuntzaile guztiekin. Biltzarreak zuzendaritza bat hautatzen dik, hura baita egitura legegilea, hilabete oroz biltzen dena. Egitura eragilea (exekutiboa), berriz, "bulegoa" duk.

Holako egiturek edozein motatako talde baten nagusitasunetik begiratzen gaitiate. Ikastolak ez dituk inoren peko edo meneko; osorik gure buruaren jabe gaituk.

—**Seaskak, lehen mailako irakaskuntzari dagozkion bi euskal eskola ireki ditik aurtan. Sei hilabereten buruan, esperientzia ona izan dela iruditzen zaika?**

—Hala duk. Joan den irailean hasi gintuan sail berri honen urratzen, eta orain arras ongi pasatzen dela ikusten ahal dik nornahik.


Hastapenean, beldur gintuan, bi eskolak debeatuko ez ote zituzten, legez kanpo aritzen ginela uste baikenuen. Gerotik, legea kontra ez genuela eta Administrazioak poxolatzen ez gintuela frogatu ahal ukan diagu. Halabaina, gure aurka hastea ez ziaiekek biziki on.

Gurasoen aldetik, herabetasun handia izan zuan hastean. Orain, sei hilabete joan dituk, eta inor ez duk gehiago harritzen. Eskola mailan fruitu onak ditugula esan behar diat. Haurrek euskaraz irakurtzen, idazten eta kontatzen biziki ontsa ikasten diate; eta euskara, eskolatzeko egokia ez zela uste zutenak, oker zeudela konturatzen hasiak dituk. Ez baita aldakuntza tipia, zenbaiten gogoetan gertatu den hori.

—**Pedagogiari dagokionez, zer bideri darraio Seaska?**

—Pedagogiaz biziki kezkatuak garela badiot, ez haizateke harrituko. Ezen ikastolen zeregina ez baitatza euskara irakastean bakarrik. Haurrak edukatu, hezi egin behar ditiagu, euskaldunki eta euskararen bidez, baina edukatu. Horregatik, zuzendaritzak dituen lan batzordeetarik garrantzitsuena, "Pedagogiarako batzordea" dukek.

IPAR ALDEKO IKASTOLEN HAZPENA

- 
- Baiona: 3 ama-ikastola
 - Angelu: Lehen mailako eskola
 - Biarritz
 - Arrangoitz
 - Uztaritz
 - Donibane
 - Lohitzun
 - Azkain
 - Senpere
 - Hazparne
 - Hendaia
 - Ézpeleta
 - Donapaleu
 - Maule
 - Donibane-Garazi

Zer den gure bidea? Pedagogia modernoari gairazkiok. Freinet-en bidetik ari gaituk. Abantaila ederra diagu, ez baitugu 25 haurrez goitiko klase-rik onhartzen.

Aitor dezadan, oso ondorio onak ateratzen direla, bai eta, gurasoak euskaldunak ez dituzten haurrekin ere. Garrantzi handikoa duk hori, ezen, geroago eta gehiago gertatuko den. Esaldi batez hona zer nerrakeen Seaskaren pedagogiaz: euskal kulturaren bidez, haurra, bere nortasunaren moldatzen eta aberasten laguntzen dugula.

—Seaskak harremanak ba ditua beste aldeko ikastolekin?

—Erakunde loturarik ez duk. Hots, ez gaituk bererakunde batetan bilduak (konfederatze edo gisa horretako zerbaitetan). Hala eta guztiz ere, ipar eta hegoaldean ikus- eta jokamolde bertsuak ditugula nabari duk: ama ikastoletan, bai han eta gisa berean hemen, euskara bakarrik irakasten duk. Gero, handitu arau, irakurtzen, idazten, eta kontatzen ere euskaraz ikasten diate haurrek. Frantsesa eta gaztelania ondolik sartzen ditiagu.

Horretaz gainera, ahalaz bederen, pedagogiko ber materialaren eta irakasbide berdinena biltzera entseiatzen gaituk. Gure irakasleek, sistematikoki, ikastaldi bat egiten diate mugaz harandiko ikastoletan, Donostian bereziki.

Zera ere esan behar diat, izendatu izanez gertatik, hegoarekilako lokarrien finkatzeko urratsen baiten egiten hasia naizela. Hastapena duk.

—Zer dira Seaskaren gerora buruzko xedeak?

—Lehenik, jadanik sortu ikastoletan, haur gogobildu nahi genitizke, Lapurdin bereziki. Ikastole handiagoak gura genitizke.

Bigarrenik, lehen mailako irakaskuntza hastapenburura eraman gogo genikek, hots, 6 urtetatik 11 urte arte. Holako euskal eskolak beste herri batetan sorterazi ahal bagenitza, ez lukek gaizki.

Hirugarrenik, ama ikastolarik ez duten hirietan haien sorteraztea: Iluron, Tarben, Akizen, Martzen mendin... Bistan dena, oraindanik eratua den sare ere aberastu nahi genikek.

—Hi sortzez eta etorkiz ez haiz euskalduna. Halarik ere, hagoenean ikusten haugularik...

—Egia diok. Nahi gabe aurkitu nauk Euskal Herrian. Gaztoroa ez diat hemen pasatu, Frantziako iparraldean baizik. Sortzez ere, Nantua-koa nauk (Frantziako ekialdeko hiri batekoa). Hona jite-
ra behartua izan ninduan, duela zazpi urte orain. Etorri orduko, hautu bat egin behar ukan genian emazteak eta biok: geure haurrak non sar, zein eskolatan, euskal ikastolan ala frantses ama eskolan? Ba dakik zer erabaki genuen. Eta behin hasiz gero...

B. Bidegorri

KULTUR EGUNA

Apirileko 17an, Donibane Lohitzunen

* * *

Arratsaldeko 3retan, DUCONTENIA
Herriko Salan

ELKAR HIZKETA BAT EUSKARAREN GAINEAN

Zertan den egun Ipar eta Hego aldean
Zer egiten den eskoletan, kazetetan, irrati
zta telebistan

Kultur talde eta batzarreen esperientzia
eta ekintzak

SEASKAK egin "montage audiovisuel" baten
ondotik, Hego aldeko Ikastola eta batzarreetako
batzuren ikusmoldea

BILKURA NAHI DUGU, NORNAHI MINTZA
DAITEKEEN GISAKOA

* * *

6 ta erditatik 9ak arte, jan eta edan,
zenbait kantarirekin

* * *

9etan, JAI ALAIko
tokian
KANTALDI HANDIA

laboa eta raimon

eraikuntza metalikoak.

HONDAR, s.a.



GALDARAGINTZA

Altzairu, aluminio eta altzairu oxidagaitzezko galdaragintza
fina

Kabina eta armairu metalikoak

Material higikorra eta trenbideetarako

Ontziak, galdarak eta autoklabeak

Ura depuratzeko lagungaiak

Autobusetarako osagaiak

Xaflagintza fina, txantiloiak emanik

Labeak, lehortze berogailuak

Trenbideetarako atearak

Telefonoak Lantegiak 69 13 56
Bulegoak 69 13 34

Kale Nagusia, 11

IRURA - TOLOSA
(Gipuzkoa)



DANTZATOKI GOXOA

Igandez ta jai egunez: 6 tatik 10.ra
Astegunez: 7. tatik 10 ra.

SOINU KOADROFONIKOA

KAFETEGI **AMA & LUR** RESTAURANTA



MENCHACA

Estalkiak, Itzalkiak, Ikurriñak, Itxas
tresnak, Igeritekoak, Uretako Jan-
tziak, Alokatzeko Itzalkiak.

Zuzenbideak: Posta, 700-Urrutizkin, 245574-Telegrafoa, MENURI
Muelle de Uribitarte, 15 BILBO - 9

ANAIAREN ORDUA



INKESTATZAILEAK ETA ELEBITASUNA

Ene adiskide bati Bizkaiko Apezpikutegitik bidalirik inkestatzaile bat etorri zaio etxera. Inkesta euskaraz izanzen zenez galdetu dio ene adiskideak. —Ezet— inkestatzailearen erantzuna. Ene adiskide horrek, horrelako kasuetan ez duela erdal inkestarik egiten erantzun dio, eta Euskal Herrian dagoen Eliza sasiuskaldun batentzat denean, are gutiago.

Ez ote ditu Elizak horrelako kasuak aurrepentsatu behar?

RAMON GARAI

BIZKAIKO ELIZA OFIZIALAREN ELEBITASUNA (??)

Gero eta harrituago uzten gaitu, Bizkaiko Eliza Ofizialak argitaratzen duen aldizkariak, "Iglesia en Vizcaya/Bizkaian eleizea" deiturikoak hain zuzen. Hasera batetan euskara eta Euskal Herriaren aldeko jarrera positibo baterako bidea izan zitekeena, kontrako jarrera bihurtu ez ote den galdetzen diogu geure buruari. Zergatik ote diodan hau? Ikus eta azter ditzagun azken zenbaki biak (8.a eta 9.A). Zortzigarrenak 20 horrialde ditu; hauetarik, bi horrialde eta erdi ozta ozta euskaraz, eta gainerontzekoak erdaraz. Bederatzigarrenean, gauzak are okerrago daude: hamasei horrialdeetarik, horrialde bat euskaraz eta gainerontzeko hamabostak erdaraz. Hori elebitasunaren alde egotea bada, ni Erromako kardinal!

Baina horretaz ez dira nire kezkek amaitzen. Artikulu interesgarriak erdaraz idatzirik daude, erdara hutsez. Euskarazko artikuluak, ordea, anekdota mailatik ez dira pasatzen (salbuespenen bat kenduz). Gramatikazko irakaspenak ere ba dira (Euskaltzaindiaren arauak ezertan segitu gabe, noski). Eta gutun bitxiren bat ere bai, zorioneko (edo eta zoritxarreko) "Comisión Provincial para la enseñanza del vascuence" erakunde ezeuskalduna goraiatuz.

Zortzigarren alean Gabika eta Naberran euskal apezken berri ematen da; indultaturik geratu direla eta abar. Eta albistea ematerakoan, Euskal Herriaren alde hainbeste burruka eta neke opa duten apez hauen izenak **erdara hutsez** aipatzen dira Holakorik!

Gauzak horrela, ez da harritzekoa, azken zenbakian (9.ean prezeski), bertako idazle bat —Olazar'tar Martin— kexuka agertzea. Honela mintzatzen zaie aldizkari horretako zuzendariari, "Euskera geiago mesedez" deitu artikulu batetan: "Gure aldizkari au ez dala

euskalduna esan bear", "orrela jarraitzen ba'dau ezin izango dogu zabaldu gure erri euskaldunetan", "Lotsatu egiten gara" eta beste. Hitz hauekin dena esanda dagoela uste dut.

RAMON GARAI

Gernika, 1976ko Martxoaren 31an

"ANAITASUNA"ren zuzendari jauna:

"ANAITASUNA"ren 313gn. zenbakian, "TANTAKA" sailean, lehengo otsailean Gernikako "JAI-ALAI" frontoian egundako jaialdia "ARETI TALDE"ko kultur elkarteari zegokiola esan zenuten. Zortzi bertsolarik eta "OSKORRI" abeslari taldeak parte hartu zuten jai hau, Foruko "GOIZEKO IZARRA" jatunen bazkuriak eta Gernikako "SEBER ALTUBE" ikastolak antolatua izan zela gogoratu nahi dizugu.

Argitasun hau argitaratzeko eskaria eta agur bihotzekoa eguiez.

SEBER ALTUBE Ikastolako
JUNTA BATZARRREAK

ANAITASUNA ALDIZKARIKO ZUZENDARI JAUNARI

Agur:

Zure aldizkariaren azken zenbakian ARETI TALDEAZ diharduen notatxoari buruz zehaztasun batzu egin nahi genituzke, inork txarto uler ez dezan.

Beste herri batzuetan egin dugu legez, Gernikan bertso-saio bat antolatzeko asmoa genuen aspeditik; ikastolakoak asmo berarekin zeunden eta Juntako errepresentante batzuekin hitz eginda gero, batera egitea arabaki genuen.

Hala ere, Foruako Goizeko Izarra Elkarte Gastronomikoak bere laguntza osoa eman zuen antolaketan, gu batez ere prentsako eta irratietako propagandaz eta jestio legalez arduratu ginelarik.

Orduan, bakoitzari berea hori da zuzenbidea, esan beharrean aurkitzen gara ARETI TALDEAN gauden lagun batzuen laguntasunaz, benetako antolatzailak GERNIKAKO SEBER ALTUBE IKASTOLA eta FORUAKO GOIZEKO IZARRA ELKARTE GASTRONOMIKOA izan zirela.

Besterik gabe, har itzazu gure eskerrik beroenak.

Josu Torre
Natxo de Felipe



EUZKO ALDERDI JELTZALEA - GIPUZKO BURU BATZARRA
Partido Nacionalista Vasco - Consejo Regional de Guipuzcoa

Zuzendari Jauna
ANAITASUNA

Donostian, 1976go martxoak 25

Zuzendari Jauna:

Orain dela hilabete batzuk, Gipuzko Buru Batzarrek, berak izenpetuta euskeraz argitaratzen dituen idazkierri buruz, Euskaltzaindiaren bideak onhartzea erabaki zuen.

Erabaki hau bide dala, Gipuzko Buru Batzarrek ez du inor behartzen bide horietara bere burua baizik, bestalde —hortarako gai ez dan ezkeror— ez du inor kondenatu are gutxiago Goiz Argi-ren aldeko joerak.

Beraz Anaitasunak (312. zenbakian) "Tantakan", "Gipuzkoako PNVA euskera batuaren alde" izenarekin argitaratzen duen berria erdi gezurra da.





URREZKO



**NO MATADERO
DE SANTURCE
NO
EZ IL TEGI
SANTURTZEKO
EZ**

Santurtziko San Juan hauzategiko ganadu hiltegia handitu nahian ari dira.. Hortik etor datekeen kirats eta sundagatik, toki horretako hauzoek protestako kanpaina bat eratu dute. Asmo honekin goian agertzen den eranskailua atara dute: **EZ IL TEGI SANTURTZEKO EZ**. Aproposagoa zatekeen, noski, **EZ SANTURTZIKO HILTEGIARI**, **EZ**, baina gizai-xoek euskara ondo jakin ez eta holaxe ezarri digute.

Hau, euskara dakitenen artean eginez gero, gure astabelarrietarako aski meritagarri balitz ere, ez da horrenbesterako Santurtziko kasuan, hauzategi horretako gehienak Andaluziatikoak direla kontuan harturik. Asko eta sobera egin dute, nik uste, beren eskari hori, nola edo hala bada ere, euskaraz ipintzean. Dena den, eta hurrengoan ardura gehixeago ukan dezaten, gure aste honetako astabelarriak **honoris causa** eskaintzen dizkiegu, unore onaz onhartuko dizkigutelakoan. Ez dago zergatik.

Luzetara. 1: I.-2: Espal.-3: I. aib. B.-4: Señale.-5: Zura. Zulo.-6: kaelare.-7: I. rag. A.-8: Sagua.-9: U.-10: N.-11: Anata.

Goitik behera. 1: Z.-2: tsuki.-3: E. Era. S. A.-4: Sataera. N.-5: Ipin. Laguna.-6: abazagU. I.-7: L. Lur. A. A.-8: Belea.-9: O.

AZALPENA



	1	2	3	4	5	6	7	8
1								
2								
3								
4								
5								
6								
7								
8								
9								
10								
11								

Gurutzagrama

Luzetara. 1: Bokala.-2: Gari sorta.-3: Bokala. Zentzi (alderantziz eta artikularekin). Kontsonantea.-4: Ezagurri.-5: Egurra (artikularekin). Hutsune.-6: Hiltzaileak (artikularekin).-7: Bokala. Suari darian argia (alderantziz). Bokala.-8: Arratsi tikia (artikularekin). Bokala.-10: Kontsonantea.-11: Senide hurrena.

Goitik behera. 1: Kontsonantea.-2: Begiratu (alderantziz).-3: Bokala. Modua. Kontsonantea. Bokala.-4: Seta ko modua, egintza. Kontsonantea.-5: Ibeni, jarri. Adis (artikularekin).-6: Nagusia, patroia (alderantziz). Bokala.-7: Kontsonantea. Gure planeta. Bokala. Bokala.-8: Egazti beltz handia (artikularekin).-9: Bokala.

Herriarekin. Herriarentzat.



Caja Laboral.




**CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE BURREZKITA**

incobil S.L.

BEROZTATZE SAILA

Incobil-ek...



**...BEROZTATZERAKO
PRODUKTU
SAIL OSOAZ
HORNITZEN ZAITU**

- Beroztatzerako arasa irradigarriak.
- Burdina urtuzko irradigarriak.
- Irradiagailuentzako balbula eta osagaiak.
- Beroztatzeko erregulapen elektronikoak.
- Presio taldeak.
- Espantsio ontziak, presionagailuz eta presionagailu gabe.
- Azelerapen uragak.
- Kalori kontagailuak.
- Kontrolerako koadro elektrikoak.
- Mineral-ilezko isolamenduak.
- Beroztatzerako bestelako osagaiak.

- Gasolio eta fueloliorako erregailu automatikoak.
- Era guztitako gasetarako erregailu automatikoak.
- Ur beroaren bidezko beroztatzerako galdarak.
- Altzairu oxidagaitzeko orma-galdarak.
- Gasen bidezko orma-galdarak.
- Altzairu oxidagaitzeko galdarak, gasen bidez eta erregailu atmosferikoak.
- Oin-galdarak erregailu atmosferikoz.
- Bero interraldagailuak.
- Ur beroko biltegi metatzaileak.

incobil

Villarrías, 10 (Edificio Capitol) - Tels. 24 10 70 y 24 10 62 - Telex 33791 Condi-E - BILBO-1

SUKURSALAK

BARCELONA-16 Siglo XX, 91 bajo
BILBO-1 Ibañez de Bilbao, 4
BURGOS Vitoria, 17 (Edificio EDINCO, D.º 709)
DONOSTIA Plaza Buen Pastor, 4
GASTEIZ Beato Tomás Zumárraga, 64-4.º-B
GIJÓN Fernández Ladreda, 25
IRUINEA Monasterio de la Oliva, 31

2567305
4233631-4233582
204947
412802
222611
352927
260150

MADRID-9
MALAGA
SEVILLA-11
VALENCIA-8

VALLADOLID
VIGO
ZARAGOZA

Hermosilla, 114
Duque Rivas, 33
Fernando IV, 14, A
Literato Gabriel Miró, 10 (bajo dcha.)
(Edificio Kyoto)
Paseo de Zorrilla, 22
M.º Berdiales, 24 - Oficina 3
Peromarta, 1

4012848
257287
271718

3261803
231605
217742
235246

LAGUNTZA ETA BANAKETA ZERBITZUAK

ALICANTE
ALMENDRALEJO (BADAJOZ)
EL FERROL (LA CORUÑA)
JEREZ DE LA FRONTERA (CADIZ)
LEÓN
LOGROÑO
LUGO
MURCIA
ORENSE
PALMA DE MALLORCA
PALMA DE MALLORCA
SANTANDER
SANTA CRUZ DE TENERIFE

INSTALACIONES TERMICAS ALICANTINAS
ELECTRIFICACIONES PARRA
D. JOSE ANTONIO BUYO BLANCO
ELECTRIFICACIONES ANUAL
MAISA
D. GREGORIO BENI FERNANDEZ
D. JOSE MANUEL LOPEZ NOGUEROL
PROINOECSA
D. JOSE MANUEL LOPEZ NOGUEROL
D. OCTAVIO M. GARCIA LLORET (Distribución)
TALLERES CAROELL
D. ANGEL CONDE PIDAL
D. VICTOR BONALES GUTIERREZ

Capitán Hernández Mirá, 14 dcha.
Francisco Pizarro, 44
Lugo, 52-3.º centro izq.
Sta. Rosa de Lima, 7 - Higuera de las Coles
Magnus Blikstad, 61 (Gijón)
Jorge Vigón, 38
Río Limia, 1-B (Ornse)
Santiago y Zarsaiche, 12
Río Limia, 1-B
Teniente Mulet, 59
Francisco Martí-Mora, 35-A
General Dávila, 62
Avda. General Mola, 102

240415
861335
356048
337170
354138
234277
277286
245363
217296
231763
237825-237845
271146
223435